

## Rafaela Romero, PSE-EE

«Gure arteko enpatia ez da sortuko kontakizuna inozoa eta inposatua bada»



- **Alava sarea** Bittori Etxeberriak frankismoaren presoak laguntzeko sortu zuen erakundea
- **Net Hurbil** Rossano Ercolini Zero Zabor filosofiaren sustatzaileari ingurumen sari nagusia
- **Bernat Etxepare Lizeoko barnetegia** Euskaraz bizi diren gazteen egunerokoa
- **EuskoCom** Batua eta euskalkiak batera ikasteko proposamena
- **Miren Agur Meabe** «Kristalezko begia nire dibagazioen irradiazio-puntua da»



# Patxi Urrutia

**GARAREN eroslea**

*«Prozesu honetan  
demostratu delako  
GARA irakurrita  
bagenekiela zer  
gertatuko zen, beste batzuk  
gertatu denik  
ere ukatzen duten  
bitartean»*



## posible egiten du

GURE AHOTSA • GURE BALIOAK • GURE HERRIA

Berari esker lortzen dugu, eta berak bezala, GARA erosten duten milaka laguni esker, gure mezua egunero 243.000 lagunengana iristea. Bere konpromiso horrek egiten du posible existitzea bai egunkari hau, bai NAIZ eta gure ahotsa gero eta jende gehiagorengana eramaten duten beste euskarri guztiak.

Gure irakurleak ditugu sostengu bakar. Alde horretatik, hedabide bakarrenetarikoa gara. Eta independente egiten gaitu horrek. Gure hedabidea aurrera ateratzeko konpromiso irmoa dugu, errealitatea ulertzeko, aldatzen ahalegintzeko eta guztiontzako etorkizun hobea lortzeko lagungarria delako.

**GUZTION ARTEAN POSIBLE EGITEN DUGU**





Azaleko argazkia:  
DANI BLANCO  
Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginuz gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.arga.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@arga.com. Harpidetzak: harpidetza@arga.com. Erredakzioa: kazeta@arga.com. Interneten: www.arga.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Salburuordetzak  
diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



## NON ZER

2013ko maiatzaren 5a, 2.367. zenbakia

### ASTEKO GAIA

**ALAVA SAREA** Elkartasuna eta erresistentzia faxisten kontra.  
JOSU CHUECA / 4

### PERTSONAIA

**BEGO MURUGA:** «Dagoen proposamen unibertsalena da berdintasuna». MIEL A. ELUSTONDO / 10

### GAIK

**BERNAT ETXEPARE LIZEOKO BARNETEGIA** Euskaraz bizi nahi dutenen bizilekua. LIDE HERNANDO / 16

### IRITZIAREN LEIHOA

**“ESCRACHEAK” ETA DEMOKRAZIA**

GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 20

**AHOBEROKERIAK** IÑAKI MENDIGUREN / 22

**OINARRIZKO IKERKETA KOLOKAN** JOXERRA AIZPURUA / 23

**GORA PRO NOBIS** ASISKO URMENTETA / 21

**TXANDAN** Eurria. AMETS ARZALLUS / 22

**BERTSO BERRIAK** CANi jarriak. JULIO SOTO / 23

### ERDIKO KAIERA

**MIREN AGUR MEABE:** «Kristalezko begi bat idaztea protesia fabrikatzearen pareko zerbait izan da».

NAGORE IRAZUSTABARRENA / 24

**TXORI** Hardcorearen aitzakian, Portugaletetik mundura hegaldatu den grafista. IKER BARANDIARAN / 28

**LITERATURA** ARITZ GALARRAGA / 30

**MUSIKA** MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR / 31

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

**ALEA** Gau-beranduan eta ilunpean bihotzean. IMA UBEDA / 33

**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA** JOXERRA AIZPURUA / 34

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 35

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

### TERMOMETROA

**RAFAELA ROMERO:** «Gipuzkoarrek ezkerreko gobernuak nahi dituzte». MIKEL ASURMENDI / 37

**EUROCOMPREHENSION** Familia bereko hizkuntzak ikasteko metoda. ELENA MARTINEZ RUBIO / 42

**HONDAKINAK** Etikak argi egin diezaioke zaborren kudeaketari. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 44

**KATALUNIA** 8.000 lagun katalanaren aldeko *Potonejada*-n Perpinyàn. KIKE AMONARRIZ / 46

**EUSKARA ALBISTEAK** ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

**EKONOMIAREN TALAIAN** JUAN MARI ARREGI / 47

**NET HURBIL** Rossano Ercolini *Rifiniti Zero*-ren bihotzari Nobel berdea. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

ALAVA SAREA

# Elkartasuna eta erresistentzia faxisten kontra

1937an euskal armada faxisten eskuetan erori zenean, lehen elkartasun sare ezkutua sortu zuten Bittori Etxeberria baztandarrak eta beste hainbat emakumek. Eusko Jaurlaritzari igorritako informazioa oso baliotsua izan zen preso zeudenei laguntzeko. Erakunde horrek amaiera tristea izan zuen baina; kideak atxilotu eta haietako bat, Luis Alava, fusilatu egin zuten egunsentiarekin batera duela 70 urte. Geroztik, Alava Sarea izena du.

| JOSU CHUECA |



SABINO ARANA FUNDAZIOA

Eskuinetik hasita bigarrena, Bittori Etxeberria, elkartasun sarearen sortzaile eta sustatzailea. Harekin, ezker-eskuin, Tere Verdes, Delia Lauroba eta Itziar Mujika, sarearen kolaboratzaile nagusiak. Atxilotuak izan aurreko argazkia da honakoa.

1943KO MAIATZAREN 6AN, ohiko heriotza segizioa Porlierreko kartzelatik abiatu zen Madrilgo Almudenako hilerriantze. Hamar errepublikar eta sozialista zeramatzen kamioiak hilerriko hormaren kontra fusilatze-ko, eta horiekin batera jeltxide bat, Luis Alava Souto. Leku horretatik hurbil zegoen Las Ventaseko emakume presoek egunsentiarekin batera tiro hotsak entzun zituzten, beti bezala. Baina han giltzapeturiko lau euskal emakume (Tere Verdes, Delia Lauroba, Bittori Etxeberria eta Itziar Mujika) ongi zekiten egun hartako fusilatuen artean zegoen Luis Alava hura nor zen. Alde batetik, burkide eta sumario-kide izan zutelako, eta bestetik, bezperatik zekitelako “kaperan” zegoela, hau da, fusilatze zorian.

Fusilatze horrek ebatzi zuen 1942ko irailetik denen burutan zegoen galdera: ea frankistek gauzatuko zuten azken zigor hori edo amore emango zuten egindako gestio diplomatiko eta politiko askoren aurrean. Bistan da ohiko aukerak irabazi zuela. 1939ko maiatzetik 1944ko otsaila arte 269 fusilatze kolektibo izan ziren Madrilgo hilerri hartan eta 2.663 lagun hil zituzten. Bigarren Mundu Gerrak norabidea erabat aldatu zuen arte, frankistek ez zuten inolako konplexurik izan ia astero halako sarraskiak egiteko.

Luis Alavaren heriotzak, frankisten gupidarik eza erakustez gain –sare hori hiru urte lehenago desegin zutenen erabat geldirik zegoen–, bertan aritu zen taldeari izena eman zion. Ordutik aurrera Alava Sarea gisa igaro da herri memoriara eta komunikabideetara.

Baina hilketa tamalgarri horrek izenetik harago doan ekimenean izan zuen jatorria. Erakundaren amaieran Luis Alava dugun arren, abiapuntuan eta jardunean erantzukizun handiagoa izan zuen jendea zegoen.

**Bittori Etxeberria baztandarra hariak mugitzen hasi zen lehen elkartasun sarea eratzeke. Bera izan zen lehen kate-begia Ipar Euskal Herrian zeuden buruzagi jeltxideekin lotura izan eta preso zeudenekin bitartekariak lortzeko**

## Elizondotik Baionara Santoñan barrena

Arestian aipatu ditugun emakume horiek izan ziren aitzindari Alava Sarea eratzen. Kantabria aldean euskal armadaren zati handi batek egindako errendizioaren karira sortu zen. 1937ko abuztuaren amaieran Santoñan eta Laredon hainbat euskal buruzagik italiarrekin hitzarmena sinatu zuten eta Eusko Jaurlaritzako agintariek berri zuzen eta zehatzak nahi zituzten, hura betetzen ari ote zen eta nolako ondorioak zituen jakiteko.

Presoen baldintzak eta egoera ezagutu nahian, Jose Maria Lasarte diputatu jeltxideak eskaria egin zion Bittori Etxeberria baztandarrari. Etxeberria hariak mugitzen hasi zen Elizondon, Euskal Herriko lehen elkartasun sarea eratzeke. Bera izan zen lehen kate-begia Ipar Euskal Herrian zeuden buruzagi jeltxideekin lotura izateko, eta

era berean, gainontzeko euskal lurraldeetan preso zeudenekin bitartekariak lortzeko.

Etxeberriarekin batera emakume bi, Delia Lauroba eta Itziar Mujika donostiarak, arduratu ziren Santoñan gertatutakoaz eta El Duesoko presondegiaren egoeraz datuak lortzen. Aitzakia ona zuten biek hara hurbiltzeko eta informazioa eskuratzeko. Laurobak Jose Azurmendi senarra preso zuen El Dueson, eta Mujikak ere bi anaia zituen giltzapetuta, bata El Dueson eta bestea Ondarretan. Bilboko eta Burgosko kartzelekin lotura izateko, beste emakume bat izan zuten lagun, Tere Verdes bilbotarra, haren anaia Jose, Larrinagako eta Gaztelako espetxeetan egon baitzen.

Sare horretan, Bittori Etxeberria ezinbesteko izan zen, informazio guztia mugaz bi aldeetara eramateko arduraduna baitzen. EAJren buruzagiek Eusko Jaurlaritzarentzat idatzirik *Barne Zerbitzuaz* txostenean, Etxe-

**Ekain berri**

**Euskal Kulturaren sustraiak**

Sarrerren salmenta | Venta de entradas

**ONLINE**

www.ekainberri.com

943 86 88 11





Sarean parte hartu zuten hainbat lagunen irudia; lehen lerroan eserita eta txapelarekin, Luis Alava, Arabako arduraduna.

berriaren rola goraiatzeko da: “Pepitaren-gandik (Bittori Etxeberriaren gerra izena Pepita Etxano zen) sortu zen erakundea. Hark egin zituen lehen urratsak; hark zabaldu zuen bidea. Egun, harreman ororen funtsezko oinarri izaten jarraitzen du. Laredoko azken unean, Pepita Etxanok ezkutuko txangoa egin zuen hara. Jarraian, berarekin elkarrizketa ginen: probidentziazkotzat jo genuen. Berak ezagutzen zituen bitartekoak eta isolaturik zeuden hainbat abertzale, giza ekimenetan eta elkartasun lanetan zihardutenak... Hasieratik esan zigun bitartekoak zituela, esku onez eta erabateko ziurtasunez, mugaz bi aldeetako komunikazioa bermatzeko”.

Lau emakume horiek harilkatu zituzten sarearen atalak, azkar bezain sendo, eta Euskal Herritik harago hedatu zuten gainera. Abiapuntua Baionan izan bazuen ere, laster Baztanetik Iruñera, Donostiatik Bilbora nahiz Gasteiza, eta geroxeago, euskal presoak sakabanaturik zeudenez, El Duesora, Burgo-sera, Dueñasera eta Puerto de Santa Mariara heldu zen elkartasun sarearen eragina.

**Sarritan, sareak egindako lana alferrikakoa izan zen presoek bizitza salbatu edo askatasuna erdiesteko, baina beste batzuetan, heriotza zigorrak beste zigor batzuekin ordezkatzeko lortu zuten**

Hedapenean aurrera eramateko, hainbat partaideren laguntza izan zuten euskal lurralde orotan. Araban esaterako, Etxeberria Luis Alavarekin jarri zen harremanetan, eskualde horretako arduradun izan zedin. Nafarroan aise lortu zuen erakundea zabaltzea, talderik handiena osatuz. Bereziki muga lanetan aritu

ziren Esteban Etxeberria, Felicitas Ariztia eta Timoteo Plaza baztandarrak, baita Felipe Oñatebia, Modesto Urbiola, Rafael Goñi Latasa eta Felix Ezkurdia ere. Gipuzkoan ere talde ederra jarri zuten lanean: Iñaki Barriola mediku ospetsuaz gain, Inocencio Tolaretxipi, Rafael Gomez Jauregi eta Patxi Lasa. Bizkaiko taldea txikiagoa zen eta Tere Verdesengan oinarritu

zen, kolaboratzaile batzuk izan zituen arren, hala nola Julian Agirre eta Antonio Causo.

### Sarearen helburuak


Gatibu zegoen euskal armadaren gehiengoaren patua atzemanda, presoek aldeko laguntza sustatzea izan zen eginbehar nagusia. Garrantzitsua zen erbestean zeuden buruzagien eta kartzeletan zeudenen arteko lotura mantentzea. Esaterako, preso zeuden Juan

Ajuriagerra eta Jesus Solaun, harremanetan jarri zituzten mugaz bestaldean zeuden Jose Mari Lasarte, Ramon Agesta eta Juan Iturbe buruzagi jeltokideekin. Espetxeetako informazioa Baionara eta Parisera bidaltzea zuten helburu, presoek zituzten zigorrak, heriotzarakoak bereziki, nazioarteko eragileen bitartez eragozteko.

Egundoko garrantzia izan zuten sarekideek eskuratutako zigortuen zerrendak, epaiak eta sumarioak, preso askoren bizitzari eusteko. Era berean, gerra amaitu baino lehenago burutu zituzten bi aldeetako presoen trukaketak aurrera eramateko, funtsezkoa izan zen beraiek bidalitako informazioa. Sarritan, sareak egindako lana alferrikakoa izan zen presoan bizitza salbatu edo askatasuna erdiesteko, baina beste batzuetan, heriotza zigorrak beste zigor batzuekin ordezkatzera lortu zuten.

Gerra amaitu ostean, egoera larriagotu egin zen. Alde batetik, presoan trukaketak bukatu zirelako, eta bestetik, errepresioa orokortu egin zelako. Kartzelen eta espetxeratu kopurua ugaltzeaz gain, beste esparru errepresiboak –lan batailoiak eta kontzentrazio zelaiak– nonahi zabaldu zituzten Espainia frankistan. Hala, gatibu eta zanpatuekiko elkartasuna handitu egin zen, baita haien inguruko informazio beharra ere. European barrena erakutsi behar zen erregimen frankistaren errealitate errepresiboa, Britainia Handiak eta baita Frantziak ere –Jordana eta Bérarden arteko hitzarmenen ondorioz– onetsi zuten hura.

Baina informazioa ez zen presoan gaira mugatzen. Sareak izan zuten bigarren ekimena Espainiako Estatuari buruzko informazioa hornitzea izan zen. Gero eta okerragora zihoan egoera politiko-militarrari buruzko jakin-minak bultzatuta, jatorriz presoan aldeko sarea zena informazio sare ere bihurtu



**Sareak dokumentazioa helarazten zion Eusko Jaurlaritzari, kartzelaratuta zeuden presoan eta buruzagien inguruan. Goiko irudian, Juan Ajuriagerrak Burgosko kartzelatik bidalitako gutunaren azala.**

zen. Nazioarteko testuinguruak, Bigarren Mundu Gerraren bezperako egoerak, informazio nahi hori areagotu zuen gainera. Espainiako Gerra Zibilaren osteko giro gero eta liskartsuagoan, Frantziak eta Britainia Handiak beharrezkotzat jo zuten Pirinioetako alde bietan informazio ahalik eta zehatzena izatea.

Alava Sareari esker eta Eusko Jaurlaritzen bitartez, jakin zuten non zegoen Espainiako armada zabaldua, zenbat gotorleku eta kuartel zeuden mugaldea, itsasontzien mugimenduak nolakoak ziren, alemaniarren joan-etorriak, Espainiako barne egoera sozio-politikoak... Erakundearen eraginkortasuna itzela izan zen. Ia astero igorri zizkien erbestean zeuden Eusko Jaurlaritzako buruei agiriak eta informazio sortak. Parisko egoitzan sareari atzemandako txostenak zioen “liburuak, aldizkariak eta antzekoak aparte utzita, 1.242 agiri” jarri zituztela Jose Antonio Agirreren gobernukideen eskuetan.

Eraginkortasun hori esplikatzeko, kontuan izan behar da klandestinitatearen nekeak modu egokian eraman zituztela. Sareak iraun zuten bitartean, partaide batek baino ez zuen ospa egin behar izan, Agustin Ariztiak, polizia haren atzetik ibili zelako. Gainerako guztiek sareak bezainbeste iraun zuten jardunean, harik eta Parisen atzemandako txostenak Espainiako polizia haien arrastoaren atzetik jarri zuen arte.

### Espetxea barrutik, heriotza larrutik

Alemaniarrek Paris hartzearekin batera, Eusko Jaurlaritzak Avenue Marceau-n zuten egoitza eskuratu zuten frankistek –gaur egun, itzulerarik gabeko lapurreta dela medio, Cervantes Institutuaren egoitza dena–. Gestapo-k kideek eta polizia frankistek han aurkitu



## Liburu azoka

Amurrión, maiatzaren 1etik 5era, Guk ibilbidean


### EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi irakurriz!*



## ALAVA SAREA



SABINO ARANA FUNDAZIOA

Ezkerrean, Luis Alavari egindako marrazkia, 1942an kartzelan zela; hortik gutxira fusilatu zuten. Eskuinean, sareko kideak Madrilgo atxiloketa gune edo *checa* batean; ondoren sakabanatu egin zituzten.

zuten *Barne Zerbitzuaz* txostena. Dokumentu horretan, izengoitiak eta gerra izenak erabiltzen ziren arren, ezaugarri eta datu asko zetozen sarearen gorabeheren inguruan: nola sortu zen, nortzuk osatzen zuten, zer nolako jarduna izan zuen... 1940ko ekainaren bukaera zen eta handik aurrera miaketak egiten hasi ziren polizia eta militar frankistak.

Sareko ordezkariak 1940ko abenduan azken bilera egin zuten Gasteizen, Ipar Euskal Herriko eta Frantziako egoera ikusirik, erakundea bertan behera uztea erabakiz. Artean, ez zekiten faxistak haien lorratzari segika zebiltzala jadanik. Polizia frankistak sareko kideen berri zehatza zuen. Erakundea desegin eta astebetara lehenbiziko atxiloketak izan ziren, sarea sortu zen tokian, Baztanen. Bittori Etxeberria, anaia Esteban eta Felicitas Ariztia harrapatu zituzten lehen kolpean. Jarraian, atxilotak ugaritu ziren Iruñean, Gipuzkoan, Gasteizen eta Bilbon. 1941 hasi berria zela, Madrilera 28 atxilotu eramane zituzten, Ondarretako, Iruñeko eta Larrinagako kartzelatik igaro ostean.

Madrilgo espetxe eta *checa* edo atxiloguneetan sakabanatu zituzten atxilotuak. Hasieran guztiak Fomento kaleko *checan* egon baziren ere, lehen itaunketak egin ostean, emakumeak Las Ventasko espetxera

eramane zituzten eta gizonetakoak Porlierre-ra. Aukera paregabea izan zuten ezagutzeko, murrue barrutik, zein zen Espainiako kartzelen egoera latza: jende metaketa ikaragarriaz gain, gaixotasunak, gosea eta batez ere heriotzari beldurra, *saca-k* –presoak ziegetatik atera eta fusilatzea– indarrean zeudelako.

Sarean ibilitako asko heriotzatik gertu izan ziren, 1941eko uztailaren 3an epaitu ondoren kondena oso gogorak jarri baitzizkien tribunalak: 19 heriotza-zigor eta gainerakoentzat kartzela zigor luzeak. Dena den, epaiari helegitea jarri zioten eta 1942ko irailaren 18an bigarren epaiketa izan zuten.

Horren ondorioz, heriotza bakarrera –Luis Alavarena– eta kartzelaldi luzeetara mugatu zuten zigorra.

Behin betiko zigorrak jasota, Luis Alavaren bizia nola edo hala salbatzen ahalegindu ziren, kalean zeudeneko lana gogora ekarriz. Baina hortik aurrerakoak diktadura basatiaren magaletik burutu behar izan zituzten, eta Luis Alavaren kasuan, arrakastarik gabe gainera. Porlierren eta Las Ventasen gelditu zirentzat, burkide haren heriotza 1937an hasitako ekimen solidarioaren pasarterik tristeena izan zen. Hori dela-eta, beraien eta herriaren oroimenean, orduz geroztik Alava Sarea da. ■

**Luis Alavaren fusilatzea 1937an hasitako ekimen solidarioaren pasarterik tristeena izan zen. Ondorioz, espetxean geratu ziren burkideen eta herriaren oroimenean, orduz geroztik Alava Sarea da.**







# dokumentalak.com

## Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 125 dokumental eskura

Amerikanuak  
 Anuken egia  
 Arrhash, pozoina  
 Banlieues. Pariseko errebotak  
 Basque hotel  
 Bidaia Intimoak  
 Botilen hilerria  
 Companys eta Agirre azken erbesterantz  
 Debekatuta dago oroitzea  
 Egunero  
 Egunkaria, hamar urte geroago  
 Elburua Gernika  
 Euskal Herria: Ezkutuko zorra  
 Euskararen jatorria: Enigma europar bat  
 Gudari baten egunerokoa  
 Haizea eta sustraiak  
 Insumisioa. 20 urte desobeditzen  
 Iparraldea XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean  
 Iruña-Veleiako misterioa  
 Itoitz hustu arte  
 Itsasoren alaba  
 Langile autonomia  
 Leku hutsak, hitz beteak  
 Nire bizi osoa espetxean  
 Nömadak Tx  
 Oroitarria  
 Perurena  
 Pluja seca - Euri lehorra  
 Sagarren denbora  
 Sahara marathon  
 Salda badago  
 Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen  
 The Yes Men fix the world  
 Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

[multimedia@argia.com](mailto:multimedia@argia.com)

[www.twitter.com/dokumentalak](http://www.twitter.com/dokumentalak)

[www.facebook.com/dokumentalak](http://www.facebook.com/dokumentalak)

**argia.com**

**EGUZKI BIDEOAK** *elkarlanean*



# «Dagoen proposamen unibertsalena da berdintasuna»

25 urte betetzen ditu aurten Maria Maeztu Forum Feministak. Garai hartara eta atzerago ere egin dugu bidaia Bego Muruagaren eskutik, Forumaren sorreran izan baitzen. Lehena ikusi dugu, gaur eguna entenditu nahirik.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

## Nola ikusten duzu zeure burua orain dela 25 urte?

Berdintasunari dagokionez, orain baino askoz ere ilusionatuago orduan, dudarik gabe. 1987an, II. Euskal Mundu Biltzarra egin behar zen garaian, emakumeen inguruko gai-rik ez zela izango jakin genuen. Antolatzaileekin harremanetan jarri, bilera egin, gabezia bistara ekarri, eta haien erantzuna: “Beranduegi da, aurki argitaratuko da egitaraua, ezinezkoa da”. Ez genuen etsi. “Ideiak ditugu, pertsonak ere baditugu... Di-da batean egin dugu”. Eta berdintasunaren gaien inguruko kongresua txertatu genuen Mundu Biltzar hartan. Kongresua giltzarri izan zen nire bizitzan, beste bizpahiru gertakirekin batera. Hausnarketa sakona eragin zidan kongresuak. AEBetako, Norvegiako, Italiako emakumeak ekarri genituen. Bata historialaria zen, bestea soziologoa, hurrengoa psikologoa... Kongresuak mundu berri bat ireki zidan. Han entzun nuen lehenengo aldiz “androzentrisimo” hitza. Norvegiako parlamentuan, adibidez, emakumeek adostasunak lortzen zituzten berdintasunaren inguruko gaietan. Tradizio handia zuten. Esaten ziguten, askotan alderdiaren kontra ematen zutela botoa.

## Arabako Emakumeen Asanblada utzi zenuen...

Bai. 1975ean Bermeotik Bilbora joan nintzen bizitzera. Bi urte egin nituen han, politikan nola edo hala sartuta, baina emakumeen bilere-tara joateko modurik gabe. Gasteiza etorri eta feminismoaren barruan lan egin nahi nuela banekien. Baina ez nuen hausnarketarik egin, ez libururik irakurria, intuizioa besterik ez nuen. Arabako Asanbladan hasi nintzenean, 80 emakume ginen. Izugarria zen. Gehienak inde-

pendenteak ginen, ez ginen alderdi politikoeta-ko militante. Gehienok independente izanaga-tik ere, ordea, hura zuzentzen zutenak militan-te ziren, troskistak eta mugimendu komunistako kideak. Liderrak ziren, nahiz eta lidergoa ukatu. Egitura ezaren tirania zen hura. Bada artikulua bat horri buruzkoa: *La tiranía de la falta de estructuras*. Oso interesgarria. Bada, tirania horrek kalte handia egiten die asanblada egitura dutenei. Ni, hala ere, neure kasa ibiltzen nintzen. Horrela, asanbladan planteatzen ziren gai batzuen inguruan bestelako ikuspegia izat-en hasi nintzen. Bestelako liburuak irakurtzen nituen, bestelako kezka nituen. Asanbladan, unean unekoari erantzuten genion, zela bortxa-keta, zela Martxoaren 8a, abortua, dibortzioa... baina nik neure bidea egin nuen. Ordurako, hau eta hura irakurtzen hasi nintzen: *Marxismo y feminismo, El ama de casa bajo el capitalismo, El segundo sexo, La mística de la feminidad, Política sexual, Ensayos sobre la igualdad sexual...*

## NORTASUN AGIRIA

**Begoña Muruaga Laka** (Bermeo, 1953). Batxilergo eta Administrazio ikasketak egin zituen lehenengo, eta aitaren ontzian hasi zen gazterik lanean, Bermeon. Ondoren, Bilbon jardun zuen beharrean, eta Gasteizko AEK-n gero; idazkari, lehenengo urtean; irakasle, hurrena. Euskal Filologia egin zuen geroago, 80ko hamarkadan. Emakunden lan egin zuen 1991tik 1998ra, eta Arabako Foru Aldundian ari da, Kulturean. Eusko Jaurlearitzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan egin zuen lan, Euskara Sustatzeko zuzendari. “Oso gogorra izan da, erantzukizunagatik. Eskerrak zuzendaritzako teknikariei: oso onak!”.







### Zer ekarri zuen horrek?

1984an Asanblada utzi eta dokumentazio zentro bat irekitzeko proiektu batean sartu nintzen. Sibilla Aleramo Ikerketa eta Dokumentazio Zentru Feminista sortu genuen 1986an, eta urte horretan hasi nintzen Zarautzeko bileretan parte hartzen. Bestalde, Maria Maeztu Forum Feministarekin frogatu dugu posible dela alderdietako emakumeak eta independenteak elkarrekin lanean aritzea. Ia alderdi guztietako emakumeak daude Forumean, baina gehienak independenteak gara.

### 1988an Emakunde sortu zen. Lorpen handitzat jo zuten garai hartako emakumeek.

Emakume batzuek! 1986an Zarautzen biltzen hasi ginen zenbait emakume, Legebiltzarrari eskatzeko berdintasun politika garatuko zuen erakunde bat sor zezan. Bilera pila egin genituen ondoko bi urteetan, Emakunde sortu arte. Aho batez onartu zuten legebil-

## Ama matxistak

**“Oso matxistak ohi dira amak. Oso estuak dira alabekin, semeekin baino gehiago, dudarik gabe. Semeak lanera joan behar duela, bidaia bat duela... Dena barkatzen zaio. Alabak ere bere obligazioak izan arren, laster esango dio amak: ‘Zure lehen lana ama zaintzea da, bigarrena da lana’. Semeari ez dio horrelakorik esango amak”.**

tzarkide guztiek. Bertan izan nintzen egun hartan. Hunkitu egin nintzen. Hitz egiteko txandan, uste dut Rosa Diezek esan zuela Legebiltzarra osatu zenetik bigarren aldiz hartzen zuela Gasteizko parlamentuak erabaki bat aho batez. Botere publikoak berdintasun politikak garatu behar dituela eta feminismoak harekin kolaboratu behar duela defendatzen genuenok pozik geunden. Beste batzuek berriz, “feminista instituzionalistak” ginela leporatu ziguten, leporatzen digute, erakundeekin lan egitea defendatzeagatik.

### Zuzen daude, ala oker?

Arrazoi zuten neurri batean. Baina berdindertatu da gainerako mugimenduekin. Horrek ez du kuestionatzen borroka hori, hau da, erakundeek legeak exijitu behar zaizkie, eta legeak bete egin behar dira, askotan ez dira-eta betetzen. Berdintasun legea beteko balitz, askoz hobeto egongo ginateke. Hortaz, Emakunde sortzea aurrerapauso izugarria izan zen. Batzuek, oraindik, diote botere publikoak patriarkalak direla, eta botere patriarkalak ez duela sekula berdintasun politikarik sustatuko. Ez nator bat iritzi horrekin. Europa iparraldeko herrietan zertan diren ikusi besterik ez dago. Boterea patriarkala da han eta hemen eta mundu guztian. Patriarkatua besterik ez dago, bai, baina Norvegiak berdintasun maila handiagoa garatu du guk baino.



## Bryce Echenique

**“Elkarrizketa egin zioten behin Bryce Echeniqueri eta honakoa galdetu zioten, zergatik ez zuen umerik. Eta beraren erantzuna: ‘Ez dudalako nahi izan, eta nirekin izan ziren emakumeek ere ez zutelako nahi izan’. Horretan bat egin dut Bryce Echeniquerekin”.**

Emakunde sortzeaz batera, hainbat emakume elkarte ere sortu ziren.

Perretxikoak bezala. Baina horixe, “emakume elkarteak”, ez elkarte feministak.

Ezberdina da...

Oso, oso ezberdina! Askotan esaten dut: ez genuke “emakumeen alde”, esan beharko, “feminismoa eta berdintasuna” aipatu beharko genituzke beti, zeren eta gizon matxisten ondoan emakume matxista pila dago.

**Zein girotan eratu zenuten Maria Maeztu Forum Feminista?**

Emakunde sortzea lortu genuenean, zera esan genuen: “Batzorde bat osatuko dugu, erakundeak zer politika gauzatzen dituen aztertzeko. Jarraipen batzordea izango da, eta proposamenak eta beste egingo dizkiogu”. Horretan ari ginela, eztabaidan, batek: “Eta zergatik ez dugu elkarte feminista bat sortzen?”. Nor bere bidea egiten ari zen talde hartan, eta proposamena ez zitzaigun gaizki iruditu. Hurrengo bilera baterako deia egin genuen, estatutuak, izenak... aztertzeko, eta horrela egin genuen.

**Maria Maeztu, izena.**

Idoia Estornesek ekarri zuen izena. Aitortu behar dizut garai hartan ez nuela Mariaren berririk. Ramiro Maezturen berri bai, eta geroago jakin nuen nor izan zen Gustavo. Bileran asko ginen Maria Maeztu ezagutzen ez genuenok. Eta berak: “Baina zuek ez duzue Auñamendi Entziklopedia aztertu?”. Idoiak azaldu zigun haren biografia. Foruma-

ren ideia berriz, guztioi gustatu zitzaigun. 1987an Madrilan sortua zuten foro feminista bat, eta bagenuen kezka biak nahastuko ote zituen jendeak, baina ez zen horrelakorik izan. Maria Maeztu izenak ez zuen horretarako biderik eman. 1988an bertan estatutuak osatu, eratu eta legezko izaera hartu zuen Maria Maeztu Forum Feministak. Nahiz eta urtebete lehenago Maria nor zen ez nekien!

**Zer diozu hasiera hartaz?**

Oso indartsu sortu zen Bizkaian eta Gipuzkoan, eta ahulago Araban. Emakume asko ginen, eta 25 urte gazteago! Hori ere bai. Niri, behintzat, gorputzak ez dit orduan bezala laguntzen, baina buruak bai, eta ari gara. Azkenaldian aldatu egin dira kontuak: Bizkaian eta Gipuzkoan ahulago dago Foruma, eta aldiz, indartu egin dugu Araban. 30 urte inguruko zenbait gazte inguratu dira. Horiek indarra dute izugarria, eta oso jantziak daude teknologia berrietan, sare sozialetan... Facebook-en profila irekitzea planteatu dute... Espazio berriak dira, haiek horren alde daude. Ni beste joera batekoa naiz, pape-rari oso lotuta bizi naiz oraindik, baina gazte horiek bestela datoz, eta errespetatzen dut haien bidea. Esaterako, mugimendu feministaren barruko joera berriak, *queer* eta beste, hobeto ezagutzen dituzte nik baino; ni orain ari naiz horretan trebatzen.

**Genero indarkeria da feminismoak gaur egun duen problemarik handiena?**

Ez. Inolaz ere ez. Are gehiago, botere publikoek gai horren inguruan hainbeste ekimen gauzatzeak beste arazo batzuk ez planteatzea dakar. Arazo larriak ditugu lan munduan eta ardurakidetasunean. Bestalde, Mendekotasun Legea izan da aspaldi eman diguten egurrik handiena. Emakumearen lan egoera eta soldata, esaterako, ez dira gizonarenak. Ezta pentsatu ere. Horri dagokionez, ospitaleetako zerbitzu asko kanpora ateratzea ez dut



# TALLERES MITXELENA

S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000

Fresadora: 10.000 x 3.500

Barrenatze mekanizatua

**Talleres Mitxelena, S.Coop.**  
Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)

## AZKEN HITZA

### Erabakiguneak

“Gizartean, oro har, erabakiguneetan dagoen jendeak, izan gizon zein emakume, ez du batere sentiberatasunik berdintasunari dagokionean. Egia da botere gune horietan gizonetzkoak direla nagusi, baina zoritxarrez, emakume gehienek ere eredu maskulinoa jarraitzen dute”.

uste kasualitatea denik. “Zerbitzu ez propioak” izena ematen diete: sukaldeko lana, garbiketa...

#### Emakumeak dira hor.

Emakumeak. Lana non da ezegonkorren? Emakumea ari den zerbitzuetan. Ez da kasualitatea. Historikoki frogatuta dago, datuak ditugu. Sistemak jarraitzen du pentsatzen soldata nagusia gizonarena dela eta emakumearena osagarria dela. Horrela pentsatzen du sistemak, inork esaten ez badu ere. Gizonezkoak eta emakumezkoak ez dugu lan egiteko eskubide bera.

#### Non da irtenbidea?

Gizartearen arlo askotan.

#### Feministek boterea hartzea da irtenbidea?

Boterean feministak egoteak lagunduko liguke, noski. Bada alderdi feminista bat 1979an legezatu zutena, baina feminista asko ez gaude haien bidearekin ados, eta ez diogu botorik ematen. Gure Forumean, esate baterako, independente izatea dugu lehentasuna. Irtenbidea non den? Gauza asko egin behar ditugu: jendearen mentalitatea aldatu, ze ez da aldatu uste dugun bezainbeste. Gizonak parte-hartze eskasa du bizitza pribatuan: haurrak edota nagusiak zaintzeko baimen gutxi hartzen dituzte; lanean bere burua promozionatzeko aukera baldin badu, gizonak nekez egingo dio uko horri; emakumeak, aldiz, uko egingo dio kasu gehienetan, familiari lehentasuna emanaz. Zerbitzu publikoetan berriz, Europako iparraldera begiratu behar dugu oraindik, Finlandiara kasu. Hango eskolak eta beste. Bestalde, hor dira hedabideak, izugarritzko eragina dute rol sexualak indartzean.

#### Maria Maeztu Forum Feministak garrantzi handia ematen dio hezkuntzari.

Bai, baina gurean ez da nahikoa egiten. Irakasleek ez dute berdintasunaren inguruko prestakuntzarik, ez dira konturatzen gelan adibide sexistak jartzen ari direla etengabe, eskolako liburuetan zein eredu agertzen den



ez dira jabetzen... Hezkuntzan asko aurreratu da, gaur egun neskek mutilak beste doazelako unibertsitatean, baina beste arlo askotan, irakasleen jarrerak, eskola-liburuak, emakumearen presentzia, gurasoek jasaten duten bonbardaketa mediatikoa... Horietan oso urruti gabiltza oraindik.

#### 25 urte atzera egin dugu elkarriketaren hasieran, eta 1988an orain baino ilusionatuagoa zeundela esan diguzu. Eta gaur egun?

1987ko Mundu Biltzarretik nentorren orduan, mundua jateko moduan nengo! Gaur egun, Espainiako Gobernuak desager dadin beharko nuke berriz ilusionatzeko. Oker kudeatzen ari dira krisia, gezurretan ari dira. Gizarte zerbitzuak etengabe murritzten ari dira. Zapateroren lehen agintaldiko garaira itzuli beharko genuke: homosexualitatearen gaia, dibortzio lege berria, abortua, mendekotasun legea onartu zen, zerbitzu publikoak indartu ziren... Zerbitzu publikoak indartu eta dauden legeak bete. 2009an dokumentu bat sinatu genuen, beste elkarte feminista batzuekin, *Feminismo frente a la crisis* izenekoa, eta bertan esaten genuen enplegua beste era batera planteatu behar dela, zergak aldatu behar direla, ardurakidetasuna bultzatu behar dela eta zerbitzu publikoak indartu. Ardurakidetasuna dugu: neurri politikoak hartu izan diren arren, gizonetzkoak ez du txipa jarri. Gizonezkoak eta emakumezkoak, sakon-sakonean pertsona berdinak gara: gure adimenak, zaintza beharrak, sentimenduak... berdinak dira. Gizartea beste era batera antolatu behar dugu hori horrela izan dadin. Feminista batek esaten zuenez, dagoen proposamen unibertsalena da berdintasuna. Gizon eta emakume guztiek aukera berdinak eta askatasun bera izatea, ez da besterik. ■





# ATXEGA JAUREGIA

*jatetxea*

ATXEGA  
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)



BERNAT ETXEPARE LIZEOKO BARNETEGIA

# Euskaraz ikasi nahi dutenen bizilekua

Urtero legez, Herri Urrats antolatu du Seaskak, hilaren 26rako. Seaskaren lorpenen artean dago Baionako Bernat Etxepare ikastetxea, Ipar Euskal Herrian ikasketak euskaraz ematen dituen lizeo bakarra. Urrun bizi diren ikasleengan pentsatuz, lizeotik gertu barnetegi bat sortzea erabaki zen eta astelehenetik ostiralera gazte ugari bizi da bertan, hezitzaileen ardurapean. Barnetegira hurbildu gara, euren egunerokoa ezagutu asmoz.

| LIDE HERNANDO |

Argazkiak: Dani Blanco



EGUZKIAK irri egin digu gaurkoan. Pribilegioa, azken egunotako eguraldia kontuan hartuta. Baionatik 6 bat kilometrora dagoen Tarnosera abiatu gara, Bernat Etxepare Lizeoak barnealdeko 15-17 urte arteko ikasleentzat duen barnetegia ezagutzera. Landetako paisaia tipikoaren isla, hareazko zorua duen barruti batean sartu gara, pisu bakarreko guneak dituen (hala nola, futbol zelaia, pilotalekua, barbakoa, saskibaloi kantxa, tenis pista eta igerilekua). *Centre de vacances* jartzen duen kartelak egin digu harrera.

**Elkarbizitzarako guneaz gain, ikasteko lekua ere bada barnetegia.**

Etxepare lizeoko barnetegia orain 15 urte sortu zen. Zuberoako eta Nafarroa Behereko zenbait gurasok hartu zuten erabakia, seme-alabak lizeora egunero eramateak denbora asko eskatzen ziela ikusita. Hasiera batean, Kanboko kolegioan bizi ziren ikasleak, baina kolegioa txikia gelditu zenez, horretarako propio erabiliko zen barnetegia sortu zuten beste eraikin batean. Ordudanik hona, ikasle kopurua handitu egin da, eta horrek eraikin batetik bestera eraman ditu.

Barnetegia ez da ikasleen lotarako erresidentzia soil. Ikasleek, lizeotik ateratzen dire-



## BERNAT ETXEPARE LIZEOKO BARNETEGIA

netik hurrengo goizean klasera joaten diren arte, zaintza eta heziketan jarraipena eduki dezaten ziurtatzeko lekua ere bada. Hiru hezitzaile arduratzen dira horretaz, eta gu haietako birekin egon gara, Imanol Larrañaga eta Peio Mentarekin. Mentak, barnetegia sortu zenetik bertan lanean ari den baionarrak, hezitzaileen eginbeharrez hitz egin digu: “Taldea lizeora eramaten dugu goizean herriko autobusean, eta arratsaldean hartzen du gutako batek, berriz ere barnetegira ekartzeko. Behin hemen, haiekin egoten gara biharamuna arte. Zainketa, segurtasuna, ikasketak, loa, kezkak... Denetarik egiten dugu haiekin, ez gara bakarrik behatzaile”.

“Lizeoan dauden maila bakoitzarekin (bigarrena, lehen eta terminala, ordena horretan) lan ezberdina egiten dugu” dio Larrañagak, hezitzaile berrak. “Lehenengo urtea dutenekin, etxetik kanpo bizi diren lehen aldía izan ohi denez, hemen seguru senti daitezten arduratzen gara. Ikasketen jarraipena ere egiten diegu, arratsaldero ordu bateko ikastordu zaindua egiten baitugu haiekin. Leheneko ikasleei askeago uzten zaie, baina behar dutenean laguntzen saiatzen gara. Terminalekoei lana eta bizitza era autonomoagoan egiten uzten diegu”. Maila bakoitzeko ikasleei ematen zaien trataera ezberdindua ere nabaria da baimentzen zaizkien irtenaldietan. Bigarreneko eta leheneko ikasleei asteazkenean bakarrik uzten zaie barnetegitik kanpo egoten afalordura arte. Terminalekoei, aldiz, egunero irten uzten zaie, gurasoek hala baimentzen badute. Ikasleek barnetegiaren zainketan kolabora dezaten, hainbat taldetan banatu ohi dituzte, maila ezberdinekoak nahastuz elkarrekin harremana egin dezaten. Egutegi bat zehazten da eta talde bakoitzari noizbehinka

gauza bat egokitzen zaio: afalostean baxera egin, jangela edo eraikinak barrutik garbitu...

43 ikasle daude aurten barnetegian, lehenengo urtean baino apur bat gutxiago. “Laz terminalekoak 25 ziren, eta aurten hamabost. 45-50 artean eduki ohi ditugu normalean, 60 izatera ere iritsi gara inoiz” azaldu digu Mentak. “Hegoaldekorik aurten ez dugu, baina izan da baten bat aurreko urteren batean” gaineratu du Larrañagak. Gehienak zuberotarrak eta baxenafarrak dira, eta gutxi batzuk hendaiarrak.

Ikasleen euskararen erabileraz galdetuta, kezka azaldu dute. “Nahiko nukeena baino frantses gehiago entzuten dut haien artean hitz egiten dutenean, horretara ohituak daude. Orain lauzpabost urte euskara gehiago entzuten zela esango nuke —dio Mentak—, baina handitzen doazen heinean gero eta kontzientzeari dira euskara zaindu beharreko hizkuntza dela”. Hala ere, euskararen inguruan komunitate moduko bat sortu dela diote:

“Ez dakigu ikasle bakoitzak bere herrian zein hizkuntzatan egiten duen, baina argi daukaguna da gurekin behintzat dena euskaraz egiten dutela. Hori behintzat zerbait bada”.

**Lizeoaren etorkizuneko asmoa Biarritzen ikastetxea eraikitzea da, eta horrekin batera, 120 leku izango lituzkeen barnetegia, lizeoaren ondoan egongo dena. “Horrela ikasleek ez dute egunero alde batetik bestera joan beharrik izango”**

### Egunerokoa barnetegian

Maiana Etxegoinberri eta Maider Okhi Bernat Etxepare lizeoko bi ikasle zuberotar dira, lehena Urdiñarbekoa eta bigarrena Zalgizekoa. Lehen mailakoak dira; gizarte eta ekonomia ildotik doa bata eta zientzietatik bestea, eta lizeoko barnetegian egiten dute bizitza aste barruan. Hiruko gelak dituzte barnetegian, eta batera egiten dute lo. Goizeko 6:30ean jaikitzen dira egunero, eta oraindik nagiak atera ez dituztela, herriko autobusa hartzen dute goizeko 7:20ean, lizeora iristeko 6 kilometroak egiteko. 8:15ean sartzen dira klasean, egun berri bati aurre egite-



Xolomozko burrunzia

**Bartolo**  
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan  
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38  
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279  
[www.casabartoloetxea.com](http://www.casabartoloetxea.com)

## BERNAT ETXEPARE LIZEOKO BARNETEGIA



Jangela eta barnetegi kanpoaldea ikus daiteke goiko irudietan. Futbol zelaia, pilotalekua, barbakoa, saskibaloia kantxa, tenis pista eta igerilekua ditu barnetegiak.

ko prest. Bertan bazkaltzen dute, eta arratsaldeko eskolen ostean, 16:30ean ateratzen dira.

Lizeoko atarian egoten da hiru hezitzailetako bat haien zain, eta ikasleekin batera herriko autobusa hartu eta barnetegira itzultzen dira. Askaria egiten dute, eta ostean arratsaldea libre dute lanak egin eta lagunekin egoteko. “Normalean ganberetan egoten gara lagunekin solasean edo lanak egiten, gehiago gustatzen zaigu egongela baino” dio Maianak. “Egongelan telebista dugu, baina DVDak ikusteko bakarrik; baita ordenagailua ere. Ona egiten duenean, bada jende asko pilotan, saskibaloian, futbole... aritzen dena”. Hezitzaileen laguntza ere izan ohi dute, lanak egiteko. “Oso ikasle arduratsuak dira gehienak” azaldu digu Berako hezitzaileak.

19:30ean dute afaria, eta ikasle guztiak elkartzen dira jangelako eraikinean. Gaueko hamarrak baino lehenago dute dutxatzeko aukera, eta 22:30ean barnetegiko argiak itzaltzen dira. “Berehala lo hartzen dugu... kar, kar” dio irri artean Mainerrek. Noizbehinka, batez ere eguraldi ona egiten duenean, arratsaldeko irtenaldiak egin ohi dituzte hezitzaileekin.

leekin. “Iaz Itsasura joan ginen arratsalde pasa. Raftinga ere egin dugu, eta boloetan jolastera ere joan gara”, dio Mainerrek.

Barnetegian eta lizeoan biltzen den euskal komunitateaz mintzatu zaizkigu. Hortik at, “lizeotik kanpoko lagun gehienekin frantsesez egiten dugu, askok ez baitaki ongi euskaraz –azaldu digu Maianak–. Beste batzuen kasuan, etxean euskaraz mintzo diren arren, haien gurasoek lizeo frantsesetara eramaten dituzte”. Hala ere, biek euren herrietan, batik bat familiarekin, ia dena euskaraz egiten dute. Euskal kien trukaketa aberasgarria ere ematen da barnetegian. “Bertako lagunekin eta hezitzaileekin ia beti mintzatzen gara zuberotarrez, eta baxenafarrek ere hala egiten dute; bakoitzak bere euskalkian hitz egiten du” diosku Mainerrek. Lizeoan, aldiz, batuan aritzen saiatzen dira.

Astean zehar etxetik kanpo bizitzeak, kezka baino, irrika eragin die hasiera-hasiatarik. “Oso gustura gaude hemen –dio Maianak–. Gainera, ikastetxe beretik etorri gara gutariko asko, eta lehendik elkar ezagutzen genuen”. “Hezitzaileak ere oso jatorrak dira” gaineratu digu Mainerrek.





## BERNAT ETXEPARE LIZEOKO BARNETEGIA



Ezkerreko argazkian, Imanol Larrañaga (ezkerrekoa) eta Peio Menta, barnetegiko hiru hezitzaileetatik bi. Eskuineko irudian, Maider Okhi (ezkerrekoa) eta Maiana Etxegoinberri Bernat Etxepare lizeoko ikasle zuberotarrak.

Hurrengo urtean egingo duten Baxoa frogaz haien kezka azaldu dituzte. “Lizeoan sortu zen plataformak gauza batzuk lortu ditu dagoeneko: Matematikako eta Historia eta Geografiako azterketak euskaraz egin ditzakegu –dio Maianak–. Lorpen handiak egingo diren esperantza dut, baina ez dut uste guk froga egin behar dugunerako ezer gehiago lortuko denik”.

Etorkizunerako plan zehatzik ez dute oraindik. Maianak irakasle izan nahi duela dio; Maiderrek ez daki oraindik zer nahi duen. Iparraldean ikasketak euskaraz egiteko dagoen zailtasunak ere arduratzen ditu. Hegoaldera joan litezke, baina horretarako, terminala egin ostean, Baxoaren ordez Selektibitatea egin beharko lukete. “Ikasi nahi duguna zer den argi daukagunean, ikasketa horiek eskaintzen dituen zentroa ona den ala ez begiratuko dugu lehenbizi, eta ez hainbeste euskaraz ala frantsesez den”.

### Nomaden pare

Kanboko barnetegia txikia gelditzen ari zela-eta, beste eraikin batera aldatu ziren

orain hainbat urte bertako ikasleak. Ordudanik, barnetegi nomada bihurtu da. “Aurtengo ere ez da oraindik leku finkoa”, diote atsekabeturik Peio Mentak eta Imanol Larrañagak, nahiz paradisu txiki batean bezala sentitu bertan.

Lizeoaren etorkizuneko asmoa Biarritzen ikastetxea eraikitzea da, eta horrekin batera, 120 leku izango lituzkeen barnetegia, lizeoaren ondoan egongo dena. “Horrela ikasleek ez dute egunero alde batetik bestera joan beharrik izango”, azaldu du Mentak. “Iragarren zehatzak ez ditugun arren, uste dugu 2015 hasierarako eraikia egongo dela, dena ondo badoa”, dio Larrañagak. Etorkizun hurbilak nora eramango dituen, ordea, ez dakite. “Hurrengo urterako lekua oraindik ez daukagu lotua”, dio Mentak. Soluzio azkarren bila dabilta urtero, aurtengo hau bezalako soluzio egoki eta prezioz zentzuzkoak non aurkitu. Alde batetik bestera saltoka dabilta, baina badirudi gero eta hurbilago dagoela leku finko eta egonkorra lortzeko unea. ■



Senperako aintziratik bi kilometretan eta mendiez inguratutik, MANEX kanpalekua: bakantzetako eta deskantsuko parabisu bat. 30 lekuek presentatzen dute bista bat ezin ederragoa. **Ongi etorri!**

64310 **SENPERE** camping.manex@wanadoo.fr  
Tel. 05 59 54 13 42 **www.campingmanex.com**

**ellauri**  
HOTELA

**KILO TERDI TXOKOA**  
Kilo t'erdiko txuleta  
Legatz-solomoa plantxan  
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI  
+34 946 317 888 | ellauri.com *Natura sentitu*



DANI BLANCO

**Garbiñe  
Biurrun  
Mancisidor**



EHUKO  
IRAKASLEA,  
EPAILEA

## “Escrache”ak eta demokrazia

EZTABAIDA INTERESGARRIA sortu eta garatzen ari da “escrache”en inguruan. Polemika bizia eta aberasgarria. Zorionez, eztabaida mugatu eta zentratu da: zalan-tzan jartzen dena ez da “escrache”a bera, baizik eta bere agerpen zehatz bat. Batzuek bortxa jasanezina eta metodo faxista dela dioten arren, nik esango nuke gehiengoak beste era batera ikusten duela eta gainera, “escrache”aren zilegitasuna baieztatzen duen arrazoi juridiko sakonak badaudela.

“Escrache”a aldarrikapen eta salaketa tresna da. Beraz, eztabaidatu beharko genuke hainbat egoera injustuen arrazoiak eta hainbat jende pairatzen ari den injustiziaz: ikuspuntu hau ez da inolaz ere galdu behar, nahiz eta denok dakigun helburuak ez dituela bitartekoak justifikatzen.

*Ez dago “escrache”a kriminalizatzerik edo debekatzerik, ezta era orokorrean mugatzerik ere. “Escrache”aren mugak iraina, mehatxua eta bortxakeria dira, besterik ez: kasu horietan oinarrizko eskubide-abusua izango litzateke eta, gehienetan, Zigor Kodean jasotzen den hainbat delitutzat jotzea ahal izango genuke*

Gaur, edozein errebindikazio publikoki agertzeko manifestazio eskubidea aitortzen zaigu herritarroi Espainiako Konstituzioan eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean, besteak beste. Manifestatzeko eskubidea adierazpen askatasunaren proiektio bat da, hainbat ideia, interes, arazo eta eskabide kaleratzeko asmoz. Beraz, parte-hartze era bat da estatu demokratiko batean. “Escrache”ak, manifestazio eskubidea gauzatze-ko bidea dira eta berezitasun bakarra dute: egiten den tokia, normalean ordezkari politiko baten lantoki edo etxearen inguruan. Bada, halere, manifestatzeko eskubideak jarrera hau babesten du “escrache”a era baketsuan egiten bada. Eta ez dezagun nahastu “bakea” eta “erosotasuna”. “Escrache”ak, beste edozein

manifestazio bezala, espazio publikoetan gertatzen dira eta horrek beti eragiten ditu eragozpenak. “Escrache”etan, gainera, kargu publiko hautetsiaren etxearen inguruan egiten denez, eragozpen horiek pertsona horri izan ezik, bere familiari eta bizilagunei zabaltzen zaizkie. Baina honek ere ez dio zilegitasunik kentzen “escrache”ari.

Ez dago “escrache”a kriminalizatzerik edo debekatzerik, ezta era orokorrean mugatzerik ere. “Escrache”aren mugak iraina, mehatxua eta bortxakeria dira, besterik ez: kasu horietan oinarrizko eskubide-abusua izango litzateke eta, gehienetan, Zigor Kodean jasotzen den hainbat delitutzat jotzea ahal izango genuke. Baina eskubideak eta beren abusua ez dira nahastu behar: kasuz kasu aztertu beharko dira eta ezingo dira “escrache” guztiak aldeztu mugatu edo debekatu.

Zeren eta oinarrizko eskubideak ere mugagarriak dira, noski, bestean eskubideak eta askatasunak babestu ahal izateko. Kasu honetan, “escrache”ek beste oinarrizko eskubideak kaltetzen al dituzte? Orokorrean, lehen aipatutako mugetatik kanpo, ezetz esango nuke. Alde batetik, ezin da esan kargu publikoaren askatasuna mugatzen dutenik: kargu publiko hautetsi horrek bere gain hartu du herriaren ordezkari-tza eta, beraz, bere gain hartu behar ditu baita ere era pribatuan edo publikoan herritarrok adierazitako iritzia, kritikak eta kexak. Bestetik, “escrache”ak ez du bere ohorea urratzen, baldin eta ez badira irainak edo kalumniak zabaltzen, kargu publiko horren ardura politikoari lotutako eskaerak direlako. Azkenik, bere intimitatea ere ez dago zalantzan, kargu publikoaren iritzia eta erabaki politikoak herritarrok balora ahal ditzakegulako eta manifestazio hauek kalean gertatzen direlako.

Eta “escrache”ei mugarik ezartzea zilegi al da? Euskadiko Auzitegi Nagusiak horrela ebatzi du kasu zehatz batean, baina horrek ere ez du urratzen manifestazio eskubidea, errebindikazioa kaleratzea eta salaketa publikoa posible direlako. ■







Iñaki Mendiguren

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

## Ahoberokeriak

BADAKIT ABORTUAREN gaia korapilatsua dela, baina “holokausto isila”, “errugabeen sarraskia”, “emakumeen suizidio espiritual” eta antzekoak gehiegikeria onartezinak iruditzen zaizkit, bidegabeak eta ankerak milioika emakumerentzat.

Nola liteke urtero munduan 40 milioi emakumek, Herodesen jarraitzaile finak balira bezala, beren seme-alabak akabatzea? Zentzugabea da hori! Noski, zuk uste baduzu espermatozoidea obuluarekin elkartzen den une bereetik horri garapena eragozte eta sehaskan dagoen haurrari lepoa mozte gauza bera direla, ba, ulergarria da abortuaren aurka egotea. Baina itsutasun handia behar da identifikazio horretan tematzeko. Ez da zentzuzkoa pentsatzea horrenbeste emakumek galbide espiritualak hautatzen duela; abortua nola edo hala legeztauzten duten politikariak eta gobernua krimenari bide ematen ari direla; horretan nahasturiko senitarteko, sendagile, erizain eta abar gaizkile hutsak direla.

Gauza bat daukat garbi: emakume gutxi izango duela abortua atsegin, eta kasu gehienetan arazo latzak eta errealitate gordinak daudela atzean, batez ere, emakumeen bizimoduari dagokionez. Abortutasa garapen sozio-ekonomikoari eta pobrezari oso lotua dago. Hori erakusten dute munduko datuek (abortu-tasa apalenak Europa mendebaldean eta Ipar

Amerikan daude) eta hori erakusten dute EAEko datuek ere (2011n abortu guztien %44 atzerriko emakumeenak izan omen ziren). Pobreak aberatsok baino “hiltzaile” handiagoak ote dira, bada?

Abortuak gutxitzea jo behar dela? Ados! Horretarako onena jendearen egoera sozio-ekonomikoa hobetzea, emakumea duintzea eta ahalduntzea, heziketa eta baliabideak (aurreiritzirik gabeko sexu-heziketa, familia-plangintza, antisorgailu merkeak eta eraginkorrak...) zabaltea, eta abar. Baina ez abortua legez kanpo uztea!

Hainbat arrazoi medio haurdunaldia eten nahi duenak laguntza behar du, eta lehenik abortu hori osasun baldintza on eta seguruetan egiteko aukera; eta abegi on eta ulerkuntza behar ditu, eta paternalismorik gabeko erruki sana, baina ez gizon beltzen gaitzespen gozakaitzak!

Espainiako Eliza Katolikoaren hierarkiak eta gizartearen zati handi batek badugu elkarren artean konpondu gabeko arazo larri samar bat, hots, hierarkia horrek gobernuari presio egin eta bere iritziak beste guztioi legez ezarri nahi izatea. Gotzain jaunok, inork ez ditu zuen eliztarrak abortatzera behartzen, ezta ere zuen gay eta lesbianak ezkontzera derrigortzen. Zergatik obligatu nahi duzue gizarte osoa? Hain zaila ote da ulertzea ez dela hori erlijioen zeregina? ■

*Emakume gutxi izango du abortua atsegin, eta kasu gehienetan arazo latzak eta errealitate gordinak daude atzean*



DANI BLANCO



Amets  
Arzallus



BERTSOLARIA

## Euria

FRANTSESAREN ortografia konplikatu da, baina musikalki baditu intuizio poetiko batzuk, horietako bat da euria ari du eta negarrez ari da akorde berdinarekin jotzen dituela; *il pleure* ari da negarrez eta *il pleut* ari du euria.

Euriari idatzitako poema eder bat badu Sarrionandiak, izenburu zaila duen liburuan: “Eta zer esan euriatz, salbu eta ortzea lainotu eta euria hasi dela. Jende gehiena barruratu da, batzuk ez dute leihorik hertsu, besteek bai, eta denak norberegatu dira. Euria kanpoan geratu da, itsaso bete anpulu...”. Eta irakurri ahala bustitzen segitzen du, euritan esnatzen baitzaio deserriratuaren kontzientzia.

Ander Izagirre kazetariaren liburu bat irakurri nuen lehengoan, Djibutira egin zuen bidaia bat deskribatzen du, nomaden lurraldea da, eta kontatzen du hango jendea zergatik bizi den lainoak bezala: “Desertu madarikatu honek hankapeak erretzen dizkie, nehork ez dezake hemen errorik bota, bizirauteko alde batetik bestera errari pasatzen dute bizia”. Ur bila ibiltzen dira, hodeien atzetik.

Eta kantatzen omen dute “nun ari duen euria, han da ene aberria”.

Hemen, oraindik ateri dago. ■







## Joxerra Aizpurua

♦ INDUSTRIA INGENIARIA

# Oinarrizko ikerketa kolokan

EUSKO JAURLARITZAK 2013rako aurrekontuak izango dituen jakin gabe, dagoeneko badakigu ikerketarako poltsa murriztu egingo dela. Euskal Herriko ikerketa-talde handiena den Tecnaliak iragarri du jada neurri pertsonalak eta ekonomikoak –alegia, jendea kalera eta soldaten jaitsiera– hartuko dituela egoera berrira egokitzeko.

Unibertsitatean lanean ari den zenbait ikerlarik ere adierazi du, krisiaz gain mundutik datozen aire berritzaileek ikerketa aplikaturantz bultzatuko dutela euren jarduera.

Ikerketarako antolatuko den espazio berrian enpresen eta ikerketa-zentroen arteko erlazioak izango dira oinarri; bestela esanda, ikerketa aplikatua (ekonomia errealea aplikatua) da bultzatuko dena, zer-nolako indarrez egingo den oraindik jakin ez dakigun arren.

Badago bestelako ikerketarik ere, oinarrizko ikerketa deritzona, orain arte egin dena baina hemendik aurrera, antza, finantzaziorik gabe, edo ia gabe, geratuko dena. Ikerketa mota hori ikerketa-zentro bakoitzak egin izan du bere ametsen eta interesen arabera, eta aitortu behar dut horren emaitzak neurtzea oso zaila izan dela; areago, batzuetan uste izan dut distantzia handiegia izan dela gure gizartearen eta ikerketa mota horren artean.

Krisi egoeran gaudenez, ez dirudi oso erabaki okerra denik ikerketa aplikatuari espazioa zabaltzea eta oinarrizko ikerketari baliabideak murriztea, baina arriskuak egon badaude eta batez ere txikiak garenontzat, euskaraz lan egiten dugunontzat, euskaraz bizi nahi dugunontzat.

Ikerketa aplikatua den neurrian, ikerketa merkatuarenean uneko interesek erabakiko dute zein ikerketak bultzatu eta zeintzuk atzean utzi. Beraz, ekonomia erreala indar handiagoz aginduko du ikerketan, baina ekonomia errealean badakigu zein den zein; nork dituen baliabideak ikerketan inbertitzeko eta nork ez dituen. Gauzak horrela, begien bistakoa da arlo teknologikoa gailenduko dela arlo kulturalaren edo humanistaren kaltean, eta interes-talde handiek hogeita hamaika izango dutela eskutik, aplikatzen den arau soila ekonomikoa baldin bada betiere.

*Arriskuak egon badaude eta batez ere txikiak garenontzat, euskaraz lan egiten dugunontzat*

Guk, txikiok, espazioa izan dugu azken hamar urteotan, baina espazio hori sortu bada, euskaraz funtzionatu nahi dugun eta hori horrela izatea ahalbidetu duten irizpide politikoak uztartu izan direlako gertatu da.

Orain, duela hamar urte baino gehiago gara euskaraz bizi nahi dugunak, eta hemendik hamar urtera gehiago izatea nahi badugu, gure ikerketarako esparru bat mantendu beharko dugu, nagusiki aplikatua jakina, baina oinarrizkoa ezinbestekoa dugu bere neurrian. Batez ere, gaur amets izan daitekeena bihar errealtatera bidean jar dadin. ■



## BERTSO BERRIAK

### CANi jarriak



DANI BLANCO

### Julio Soto

♦  
Doinua: Iparragirre abila dela.

Sakela urrez gizendu nahian jarri zintzen dietan gezurrak hanka bat motza eta zuek herrena bietan. Miguel, Roberto, Yoli gorbata, poltsa, boli odolustu duzue CAN. Maza bat hartu eskutan eta emango nizueke KAN!

Bileretako tokiak eta ospatzen ziren egunak aldiko zenbat kobratzen zuten, elkartzen ziren lagunak? Kontuei begirada hiru lau zertzelada deszifratu ditugunak. Kontu atera zenbat izango diren ez dakizkigunak.

Akusatuk baldin badira epaileen adiskide? Termino antzu da justizia, amorrua eskubide. Zer mundu? Zer bizitza? Erotuta gabiltza Nafarroa adibide: Non delitu den hitz egitea eta lapurtzea libre. ■



MIREN AGUR MEABE

# «Kristalezko begi bat idaztea protesia fabrikatzearen pareko zerbait izan da»

Miren Agur Meabek (Lekeitio, 1962) galera du hizpide eta ardatz *Kristalezko begi bat* (Susa) nobelan. Gaztetan galdutako begiaren hutsunea kristalezko begi batek bete duen moduan, bestelako galera mingarriek utzitako hutsunea literaturazko protesiaz betetzeko, bere burua, edo pertsonaia, biluztu du, errealitatearen eta fikzioaren arteko muga malguarekin jokatzuz.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

Argazkiak: Gari Garaialde / ARGAZKI PRESS

*Kristalezko begia* izenburuan erabili duzu, baina izenburua baino askoz gehiago da. Zer dimentsio ditu?

Zenbait balio ditu kontakizunean: batetik, balio erreal bat, nire identitate-marka bat delako, falta zaidan begia ordezkatzeko duen protesia; beste alde batetik, balio metaforikoa du, bizitzan izandako galeren edo erauzketen sinbolo gisa erabiltzen dudalako; eta azkenik, balio literarioa, literaturaren historian antzizinatik eta sarritan agertzen den topiko bat delako, izan testu errealistetan, umorezkoetan nahiz lirikoetan.

Liburuan, kristalezko begia nire dibagazioen irradiazio-puntua da, narrazioa harilkatzeko duen elementu errepikakorra: bertara jotzen dute edo handik abiatzen dira atal gehienak, lotura esplizitu edo implizituagoen bidez.

**“Artifizio literario bat eraiki dut, zeinaren zutarrak askotarikoak diren: bizi izandakoa, ustez bizi izandakoa, bizi nahi izandakoa, bizi gabekoa... ‘paperezko ni’ bat sortu da, nire niaren proiektzioen batura dena”**

Autoimitazioa kontzeptua erabili duzu kristalezko begia definitzeko. Zer esan nahi du horrek?

Autobiografiatik bereizteko erabili dut autoimitazio kontzeptua. Autobiografia curriculum vitaeren antzeko generoa da eta, normalean, ardatz kronologiko bati jarraituz antolatzen da. *Kristalezko begi bat* definitzeko, egokiagoa iruditzen zait autoimitazioa, abiapuntua espe-

rientzia errealak izan arren, kontakizunean badirelako zati asmatuak ere. Errealitatearen mimesia da gakoa, ez errealitatearekiko leialtasuna. Bestela esanda, pertsonaia neu naiz, baina ez beti, eta ez naizenean, nire antza dauka, edo nire estiloan jokatzeko du.

Hala esaten da azken orrietan, testuaren eta kristalezko protesien arteko konparazioa egiten denean: kristalezko begia ez da benetako begia, benetakoaren kopia errealista bat baizik. Antzera, liburuaren idaztea protesia fabrikatzearen pareko zerbait izan da. Beraz, artifizio literario bat eraiki dut, zeinaren zutarrak askotarikoak diren: bizi izandakoa, ustez bizi izandakoa, bizi nahi izandakoa, bizi gabekoa... “Paperezko ni” bat sortu da, nire niaren proiektzioen batura dena.

Begibidunak ia halabeharrez baina ez-eroso begiratu ohi dio begibakarrari. Irakurlearen ez-erosotasuna bilatu al duzu?

Ez espresuki, baina jakin dakit pasarte batzuek eragin dezaketela ezerosotasun hori, edo zirrara, lotsa, morboa, jakin-mina, baita errukia ere, edo hoztasuna, besterik gabe... irakurle bakoitzaren arabera. Erreakzio horiek mezua bereganatzen ari den hartzailaren erantzun naturalak iruditzen zaizkit.

Konplizitatea behintzat bilatu duzu. Irakurleari zuzenean hitz egiten diozu zenbaitetan. Zenbait atalen amaieran oharrak idatzi dizkiozu. Bukae-  
ran azalpenak ematen dizkiozu. Irakurlea kontrolatu nahia al dago horren atzean?

Konplizitatea bai, bilatu dut, enpatia. Hasiera-hasieratik, koaderno intimo hori idazten





hasten denerako, narratzaileak itun moduko bat proposatzen dio irakurleari: “zu” bati zuzentzen zaio. Identifikazioa posible den heinean, arreta eskatzen dio, azalpenak eskaintzen, galderak egiten, zalantzak aurkezten, baita justifikazioak ematen ere, beste aldeko entzule isilaren aurrejuzkuak eta kritikak sumatzen dituenean.

Lehen pertsonan mintzatzen zarenean, azpimarratuz, gainera, zeure buruaz ari zarela, aukera bi dituzu: edo autozentsurantz jo, edo aitorten erradikalerantz. “Zu” bati zuzentzeak, apelazio hurbilak, lagundu egin dit adierazteko askatasuna berresten, intimitatea partekatzeko tonua ematen zidan. Irakurle eroapentsua edo neure parean dagoen persona bat irudikatu izan ez banu, oin-ohar

**“Apelazio hurbilak, ‘zu’ bati zuzentzeak, lagundu egin dit adierazteko askatasuna berresten. Intimitatea partekatzeko tonua eman zidan”.**

guztiak, adibidez, kendu egingo nituzkeen.

Hala ere, irakurlearen ulerkortasun hori ez zitzaidan nahitaezkoa egin une batetik aurrera. Behin biluzteko urratsa emanda, ondorio guztiekin izan behar.

Errealitatearen eta fikzioaren arteko banalerroa lausoa da liburuan. *Autoerretrotua*, *Adin arriskutsuaz* edo *Ispilua* atalek oso autobiografikoak dirudite, esaterako. Pertsonaiak Miren Agur Meabe bera dela sinetsarazten die irakurleei. Eta amaieran bat-batean irakurlea zalantzan jartzen du. Zer da hori? Irakurlearekin jokatzeko modu bat? Ala zeure burua babestekoa?

Irakurlearekin jolasteko asmorik ez neukan, baina bai, bukatzerakoan igarri nuen halako obligazio bat irakurleari abisua emateko, kon-



## Txalok aurkeztutako “Hil arte bizi” antzezlan

Maiatzak 11, larunbata, 22:00tan

Uurbilgo **Sutegi** kultur etxeko auditorioan

Sarrerak: Lizardin 8 € aldezturretik,

10 € egun berean (takilan)

Antolatzailea:  
Jexux Artez Kultur Elkartea

Babeslea:



Laguntzailea:





“Adibide barregarria naiz bipiltasunari dagokionez. Oraingoan, euskal poesiaren larrosa ez doa urrunago igeri. Txistua jo diezaitela merezi du”. Hainbatetan zeure buruari/pertsonaiari egurra ematen diozu, autokritika gogorra egiten. Kritikaren beldur ala kritika eske?

Pertsonaia bere burua aztertzen ari da etengabe, aldikada txarra pasatzen ari delako. Nolabait, ispiluari begira dago, bai bere izatea onartzeko, bai hortik sorkuntzara jauzi egiteko. Ekintza paraleloak dira: testua idazlearen produktua den bezala, idazlea ere testuaren produktua da. Beste behin ere mugez, ajeez, ezintasunez eta zailtasunez ohartuta, irribarre mingotsa egiten dio bere buruari. Esaldi hori ironiaren adibide bat da. Beste momentu bat aipatzearren, Meibik –poeta denez gero– bere buruaz bertsotan hitz egiten dueneko.

**Zeure burua biluztu duzu. Eta jendeak biluztasuna bakarrik ikusten badu, biluzteko moduari erreparatu gabe? Pertsona ikusten badu idazlea ahaztuta?**

Izan ere, biluzketak izaten du arrisku-puntua, iruzur-puntuarekin batera. Idazleak *top less* egin du batzuetan; fotogramour bestean (aldizkari espezifikoe-tan kolorezko laino artean eta dekoratu tematiko batekin egin ohi dena), eta larrugorri huts ere

geratzen da batzuetan, biluzi frontal eta integrala. Zein da biluztearen xedea? Kasu honetan, bizitza pribatu arrunt bat –beste askoren antzekoa izan litekeena– balorizatzea, literatura eginez.

Biluztasuna nola interpretatuko zuen irakurleak, exhibizionismo komertziala ikusiko ote zuen, edo egilea ezagutzeak traba egingo ote zion istorioa sinesteko, eta horrelako kezak izan nituen, neurri batean. Zalantzak zalantza, garbi neukan nire literatur proposamenaren muina zintzotasuna eta errealismoa zirela.

**Testu hau “kristalezko ispilu bat” da, “markoa patchwork estilora egina”. Azalduko al zenuke zergatik?**

“Kristalezko ispilua” diot nitasunaren literatura dela adierazteko, norbera islatzen duena;

tatutakoa ez dela ehuneko ehunean kontatu bezala. Esaterako, hausnarketa batzuk kontestualizatzeko, eszenatokiak eskaini beharra neukan. Ez dago leku-denbora-ekintzen batasun erabatekorik. Baina hori ez dago kontraesanean esandakoaren zintzotasunarekin.

Irakurleari galdetzen diodanean ea hitzez hitz sinetsiko duen kontatutako guztia, hauxe adierazi nahi dut: zeuk ipini behar duzu errealitatearen eta fizikioaren arteko banalerroa, nahi duzun tokian, eta egiten ez baduzu ere, ez du axola.

Liburuaren sarreran bada Coetzteren esaldi bat: “Eta denok bagara fikzioen sortzaileak? Eta denok asmatzen badugu gure bizitzaren historia?”. Ideia hori da funtsa: pasadizo arrunt bat emaitza literario bihurtzeko; eta gainera, probablea da geure bizitza kontatzean bertsiolibreak egitea, nahita edo nahiezta.

**“Pasadizo arrunt bat emaitza literario bihurtzeko; eta, gainera, probablea da geure bizitza kontatzean bertsiolibreak egitea, nahita edo nahiezta”.**



eta *patchwork* estiloa, atalka egindako lana dela dela azpimarratzeko. Izan ere, nobela deitu badiogu ere, testu hau koaderno edo eguneroko pribatuaren generoan koka daiteke, eta horiek ere zatika osatzen dira, pasadizoak, gogoetak eta iritziak arian-arian idatziz, egitura narratibo sendo baten premiarik gabe.

Antzera, *patchwork* teknika oihal zati solteak jostean datza osotasun harmoniko bat lortze aldera (bide batez esanda, txatalak aprobetxatzea edo berziklatzea ere izaten du helburu). Ideia horrek lotura zuzena dauka beste atal batean bizitzari buruz esaten denarekin: “Collage bat dira dagozkigun gertaerak, osatzen den heinean zentzuz betetzen den historia orokor baten atalak: zatiak josi ahala grazia hartuz doan soineko bat da bizitza”. Testua bezala, *work in progress* eran ematen da eta. Beste une batean ere, protagonistak gurasoen etxean bere antzinako argazkiak topatzen dituenean, “organismo biografiko baten zelula solteak” direla esaten du. Mosaikoaren kontzeptua da idazlanari dagokiona, ez nobela-nobelarena.

**Begiaren inguruko kontuak deskribatzeko tonu zientifikoena, aseptikoena erabili duzu. Galera eta min fisikoak idaztea bestelakoak adieraztea baino errazagoa al da?**

Askoz errazagoa. Gogoetak, inpresioak, usteak, pentsamenduak eta abar zehaztasunez azaltzea guztiz astuna eta korapilotsua egin zait. Kontu abstraktuek hainbat ñabardura izaten dituzte, eta hitzak ia ezgauza dira batzuetan horiek deskribatzeko.

**Hainbat idazleren eta musikariren aipuz eta erreferentziaz beteta dago nobela. Zergatik?**

Eduki metaliterario handiko liburua da. Esaldi horiek zerikusi zuzena dute pertsonaiaren premiekin eta ziurtasun-nahiarekin. Autoritate-argudioak dira, nolabait, bere iritziak bermatzeko. Sarritan, inoren esaldiek ematen digute argitasuna gure bizitzaren edota gure

ekintzen zergatiak geure buruari azaltzeko. Badute abantaila bat: idazle jantziaren itxura ematen dizutela... Eta desabantailak ere badituzte, zure mediokritatea nabarmentzen baitute.

**“Biluztasuna nola interpretatuko zuen irakurleak, exhibizionismo komertziala ikusiko ote zuen, eta horrelako zalantzak izan nituen. Zalantzak zalantza, garbi neukan nire literatur proposamenaren muina zintzotasuna eta errealismoa zirela”**

“Eta galdu-irabazien balantzea egiterakoan, ezin baieztatu begi batek ments duena besteak jasotzen duenik, ez ikusmenean, ez distiran”. Baina zuk galerei eta horiek eragindako minari etekina atera diezu, literarioa behintzat.

Horixe zen helburua. Zentzu horretan, liburuak izan du, batetik, alde terapeutikoa, nahiz eta gutxi gustatzen zaidan termino hori, badirudielako asmo artistikoa deskarga emozionalaren azpitik geratzen dela. Bestetik, prozesu aberasgarria izan da, idazkera trebatzeko balio izan didana. Literatur proposamen serioa egin nahi izan dut; bestela ez nien garrantzirik emango planteamenduari, egitura-ri edota hizkuntzaren erabilerari.

**“Ez dakit nora eramango nauen 2011ko irailaren 9an hasitako esperimentu honek”. Orain ba al dakizu?**

Neure buruari jarritako erronka bete nuen. Lan nekagarri bezain aberasgarria izan da, eta pozik nago harrera zabala eta beroa izan duelako, orohar. Laster, gaztelaniaz paratzeari ekingo diot, datorren urtean argitaratzeko. Ondoren zer etorriko den ez dakit. Emango dit bizitzak zertaz idatzi, orain arte bezala. ■







Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.









# Hardcorearen aitzakian, Portugaletetik mundura hegaldatu den grafista

Azken bi hamarkadetan trazu zehatzeko marrazki errealista eta zuzenak egin dira ezagun Euskal Herriko hardcore eszenan. Kontzertuetako afixetan ikusten ditugu, diskoen azaletan edota fanzineetan, eta ez da zalantzarik, sinadurarik ez daramaten arren, grafista berak eginak dira denak. Txori deitzen diote. Jimmy Bananas deitura ere baliatu izan du.

Berriki, Bilboko Banizu Nizuke kultura elkarteak bere ilustrazioekin osatutako *Al mal tiempo buena arcada* liburua argitaratu du. Horri esker jakin dugu Euskal Herrian ez ezik atzerriko ere lan ugari egiten duela.

| IKER BARANDIARAN |

TXORI zeharo harrিতa dago, liburua ikusita, kazetariok berarenganako interesa agertzen dugulako. “Nitaz baino, marrazkiez hitz egin dadila, beraiek dira protagonistak”, dio portugaletetarrak. Urte asko darama gaztetxe, musika talde, fanzine eta antzeko eragileentzat enkarguzko lanak egiten. Austrian ere ageri dira bere obrak. Baita Malaysia eta AEBetan ere.

Betidanik izan du marrazteko zaletasuna eta gaitasuna. Txiki-txikitatik, marrazketan gogoratzen du beti bere burua: “Etxeko kortinetan, eskolan harrapatzen nituen liburu eta koaderno guztietan, edonon marrazten nuen”. Eta institutu garaian hasiberriak ziren musika taldeentzat pegatinak eta irrati saioetarako marrazkiak egiten hasi zen.

## Hardcore zale amorratua

Institutan, beste gazte asko bezala, musika zaletu zen. Orduak eta orduak eman zituen metala entzuten, “disko haien azalek erakartzen ninduten”, dio berak, baina ez zuen erabat asetzen. Zerbait falta zitzaiola iruditzen zitzaion. Gerora, 80ko hamarkada bukatu



*Al mal tiempo buena arcada* liburuauren aurkezpena egileak eginiko kartelaz iragarri zuten Bergaran.

horrekin eta antolatze modu autonomoa erreferente duten argitalpenekin ere lan handia egin du. Horra hor, *Ekintza Zuzena*, Euskal Herriko aldizkari libertario beteteranoaren azalak; punk-hardcore musika euskara hutsean lantzen duen Izu Giroa fanzinearen azal guztiak; Enkarterrietako K-Putxa fantzi-

aurretik, ikaskide baten bitartez hardcorearekin egin zuen topo, eta estilo hark erabat harrapatu zuen. Spandau Bullet musika taldearen hastapenetako kide izan zen eta hardcorearen esparru naturala gaztetxe eta etxe okupatuak direnez, Portugaleteko lehen gaztetxean inplikatu zen. Lan eskerga egin zuen han.

Sasoi hartan, Bizkaiko gaztetxe eta etxe okupatuetako kontzertuetarako afitxa dezente egiten zituen. Ingurune hartan aski ezagunak egin ziren bere marrazkiak, eta apurka biderkatu egin zitzaizkion eskaerak: Astrabuduako Etxebeltz, Gornizko Xurru, Barakaldoko Edaska, Leioako Udondo gaztetxea, Santurtziko La Kelo gaztetxea, Deustuko Gazte lokala, Erandioko Sentinel, Basauriko Txarraska gaztetxea...

Aipatutako musika mota





nearenak, Piohosa's-enak, Punk-Rockerrenak zein, esaterako, musika estilo bereko Australiako Pee Zine-arenak ere. Bada bestelakorik ere. Adibidez, iazko Salamancako Liburu Anarkisten Topaketako afixa.

Giro horretako Euskal Herriko musika taldeek ere ezinbestez ezagutu zuten Txoriren lana eta poliki-poliki elastiko eta diskoetarako ilustrazioak eskatu zizkieten: Fly Shit talde esanguratsuaren zenbait diskoren azalak, baita Supercools taldeak Europako eta AEBetako taldeei egindako omenezko lanarena, Odolaz Blai, Hil Aiari, Korubo eta beste asko.

### Atzerritik eskaera handiagoa

Orain dela hamar bat urte Alemaniatik, Holandatik eta Austriatik ere eskaerak helitzen hasi zitzaizkion, eta gerora baita AEBetakoak, Hego Amerikakoak eta Asiakoak ere. Besteak beste, segidan datozen hauentzat egin dituzte ilustrazioak: Insted (Malaysia), Deadboard (Txile), Firetrucks (Israel), Polices and Thieves (AEB), Alhambre (Peru), High Time (Australia), Lion Roar (Herbeherak), Greziako eta AEBetako kontzertuetako afixa ugari... Ahoz aho zabaldu da bere lan finaren berri eta halako batean almaltimepo.com webgunea jarri zuen martxan.

Astean sei bat eskaera jasotzen dituela aitortu digu Txorik, eta diruagatik baino, zaletasunagatik egiten duela. "Horietako asko talde gazteak dira eta dudaren denboraren arabera laguntzen saiatzen naiz. Musika gustukoa izatea baino garrantzitsuagoa da jende jatorra izatea", laburbildu du.

Txori autodidakta da, eta teknika handirik ez duela dioen arren, trazu oso markatuak eta

**Txorik eginiko zenbait disko azal, kartel eta ilustrazio.**

definituak egiten ditu. "Marraztu eta tinta eman eskuz egiten dut beti, eta kolorea eta testuak gehitzeko ordenagailua erabiltzen dut. Horrela ohituta nago, eta jada berandu da hori aldatzeko". Jarraitu izan dituen marrazkilarien artean hauek atera dizkiogu, baina aitortu digu beste asko ere badirela: Ibañez, José Ortiz, Berni Wrightson, Eric Powell, Mignola, Ryan Ottley, Cameron Stewart...

### Ilustratzailearen askatasuna

Kexu da musika taldeek askotan zer nahi duten ez dakitelako. Horren erakusle da inoiz argitaratu ez diren disko azal batzuk ere batu dituela. Diskoen edo elastikoen ilustrazioak egiterakoan, musikak eta hitzek transmititzen diotena jasotzeaz gain, taldeen ideiak kontuan hartzen ditu, baina kontzertuen afixak egiteko, berriz, ez du aurreiritzirik nahi izaten. "Hor erabat aske aritzen naiz eta ez dut ideiarik jaso nahi; zer egin behar dudana esatea, musika taldeei kontzertuan abestitiko abestira zer esan behar duten azaltzea bezala, onartezina!".

Egiten dituen ilustrazio lan gehienak hardcore girorako badira ere, rockabilly, punk eta bestelako estiloetarako ere egin izan ditu ilustrazioak. "Nire musika gustuek eta hastapenetako lanek markatu dute gero etorri dena, baina ni erabat zabalik nago musika estilo eta ekimenetara. Izan ere, egiten ditudan lanetako musika taldeen %90 ez dut gustuko". Areago, gaztetan hala txunditu zuen hardcore musikak ere apur bat desengainatuta dauka: "Gaur egun musika estilo bat besterik ez da". ■





*Langosta baten inguruan*  
Telesforo Monzon  
Elkar, 1995

## Buru-buztan urrupatzekoa

TELESFORO MONZON politikaria bai, noski, nola ez. Telesforo Monzon letragilea ere bai, *Itziarren semea*, *Lepoan hartu*, *Batasuna*. Telesforo Monzon poeta pixka bat, 36ko gerra osteko exilioak idatzitakoa begiratzeko aritu zarelako. Telesforo Monzon antzerki idazlea entzutez, biografia irakurri diozulako. Baina Telesforo Monzon prosagilea ez, hori ez. Esan nahi dut erabat ezezagun zitzaidala Monzonen fazeta hori; eta pentsatzen dut niri bezala beste askori. Baina izan badu prosa lanik, aukeratu, bildu, liburuan argitaraturik esan nahi dut, *Langosta baten inguruan* izenarekin. Koldo Izagirrek egin zuen aukeraketa eta egin zion hitzaurrea. Hitzaurrean esaten zaigu, adibidez: “Lizardiri bezala gertatu izan zaio Monzoni ere neurri batean, poetaren ospeak ezkutuatu izan du prosagilearen handia”. Poetarenak, antzerki idazlearenak, kantugilearenak, politikariarenak. Biak omen dira, ordea, Lizardi eta Monzon, prosan ere handi. “Uste izan dugu euskal kazetaritza Kirikiño zela eta ezer guti besterik”; baina gero gehitzen dira Larreko, Manezaundi, Jean Etxepare, Zerbitzari, Salaberry, Larzabal, Etcheberry, Monzon bera, “euskaraz idatzi diren irakurgai ederrenen egileak”. Gaurko kazetaritzaren aitzindariak ezagutzeko lan horretan, beraz, geldialdia egin beharren gaude Monzon-Enean.

Eta izan artikuluak dira liburu honetan biltzen direnak, *Alderdi* aldizkari klandestinoan 1949. eta

1960. urteen artean argitaratuak. Urte politikoki gorabeheratsuak Monzontzat, 1952an utzi baitzuen kontseilari kargua, alderdia utzi gabe, Euzko Gobernuarekiko desadostasunengatik. Hala ere, *Agirre Lehendakariaren gaubeila* artikuluan kontatzen zaigu nola Monzonen etxeak hartu zuen Jose Antonio Agirreren gorpua, dagoeneko 1960an. Baina ez pentsa, eta artikulua gogoangarri hori alde batera utzita, gainontzeko testuek zera politikoa hunkitzen dutenik. Kontrara, gai askoz mundutarragoak, egunerokoagoak, herritarren kezkenagatik gertuagokoak dira hemen aurkituko dituzunak. Ondo baino hobeto laburbiltzen da hori hitzaurrean: “KAS alternatibaren puntuak buruz ikasaraztea baino eraginkorrago zeritzon ipuintxo bat kontatzeari”. Eta estiloa bera ere, hizkera, are euskara batuaren aurreko euskara batua –bizkai-gipuzkoa mugakoa, lapurtarra, erabat gaurkoa–, eduki horiei dago hertsiki lotua, irisgarria nahi du izan –eta bada–, irakurria. Azken batean *Langosta baten inguruan*, hasi eta buka, oso egiten baita gozoa, irakurgarria, buru-buztan urrupatzeko modukoa. Artikuluak argitaratu ziren garaian, seguruenera, baina baita 2013ko begiekin ere begiratuta. ■

**Aritz Galarraga**



# AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99  
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com







ARTESHOY.COM

## Tragedia hutsa

*Donizetti-ren Maria Stuarda.*  
Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

**Zuzendaria:** José Miguel Pérez Sierra. / Bilboko Operako Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Bakarlariak:** Sondra Radvanovsky (sopranoa), Veronica Simeoni (mezzosopranoa), Francesco Demuro (tenorea), Mirco Palazzi (baxua). **Non:** Euskalduna Jauregia. **Noiz:** Apirilaren 20an.

OLBEREN eskaintza aldi honetan ez da izan opera ikuskizun arrunt bat. Holako espektakulu batean sentsazio nahasketa espero da: musika liluragarria, koloreak taula gainean, akzioa, produkzio erakargarria... Dudarik gabe, *Maria Stuarda* honek, Stefano Poda eszena zuzendariaren eskutik, denetik zuen, baina hasieratik bukaera arte drama usaintzen zen, eta horrek beste guztia estaltzen zuen. Emaitza? Batzuentzat, zirraragarria; beste batzuentzat, aspergarria.

Egia esan, Donizetti-ren opera honek –Milango Scala-n estreinatua, 1835 urtean–, ez du akzio gehiegirik. Ingalaterrako XVI. mendeko giro odoltsua primeran irudikatzen du: konspirazioak, erlijio gatazkak, jerosia... Hau guztia sumatzen dugu obra honetan, baina ezer gertatu gabe. Elisabetta Ingalaterrako erreginaren burutazioak, eta Maria Stuarda Eskoziako erregina protagonista eta heroia

heriotza: horietan osatzen dute, laburbilduz, operaren mamia.

Eszenaratze soila baina adierazkorra izan zen. Eszenografia, jantziak, argia, dena batu egiten zen, giro bakarra lortzeko. Stefano Poda-k adierazi zuen bezala, eszenatokian irudikatu nahi zena bizitzaren *vanitas*-a zen. Jantziak ez ziren apaingarriak, barruko urratzearen irudikapena baizik; mugimendua “ez-mugimendu” bihurtzen da; keinua ez da adierazten, barrukoa baita...


Eta musikalki? Ondo. Sondra Radvanovsky soprano estatubatuarra izan zen protagonista totala. Ahots liluragarria du Radvanovsky-k. Agudo ederrak ditu, baina grabe potenteak ere, eta oso segurua da. Musikaltasunez aritu zen uneoro. Veronica Simeoni ere, Elisabetta-ren rolean, modu kontentzagarri aritu zen, eta tinbre interesgarria azaldu zuen; baina, egia esan, Maria Stuarda sendo horren ondoan, ez zuen agian merezi zuen distira izan. Bestalde, Francesco Demuro tenoreak, Roberto-ren paperean, eta Mirco Palazzi baxuak, Giorgio Talbot-en rolean, ongi eta taxuz bete zituzten beren zereginak.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak, José Miguel Pérez Sierra-ren batutapean, jakin zuen ahotsak azpimarratzen, zapaldu gabe, eta Bilboko Operako Abesbatza, beti bezala, fin. ■

**Montserrat Auzmendi  
del Solar**



Hitz gezidunak

APAIZ JUDU ... ITURRIAGA, BERTSOLARIA	ESALDI MINGARRIA, EZTENKADA ALMIRANTE	IRATZE	1500 ERROMATAR ZENBAKIZ ENBOR	GORA JOAN BIHARAMUN	... IZAN, AMAITU NAFARROA- KO HERRIA	INTSEKTU MOTA PERTSONAIA- REN ABIZENA	
		ALDATZEKO TRESNA ZILARRAREN SINBOLOA					
PERTSONAIA- REN IZENA SEKRETU, EZKUTU			SOLDATA DEUTERIOA				
					BIRIKETAKO TUBERKULOSI NAIZEN HAU		
EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA	EGIPTOKO JAINKOA PERTSO- NAIAREN SORTERRIA					HEKTAREA OSTU, EBATSI	
	DANBOR ZAPAL					HITZ, BERBA MADARI	ERRAZ ERABIL DAITEKEENA
Edo OSMIOAREN SINBOLOA							
	TENPERA- TURA URKAMEN- DIA					BITS BURURATU	
LISTUA HOLANDAR, NEDERLAN- DAR		ABISU, ADIE- RAZPEN GEHITZEKO PARTIKULA	ZAKUR GABEZIA	OXIGENOA HEGAZI MOTA	HEGAZI MOTA BARAZKI HOSTOTSUA		
						SUFREA IZENA (LABURDURA)	
BELDURREZ AZALERA ATERA			IRAKIN EZ DUEN MA- HATS ZUKU TONA				
					EUSKAL MITOLO- GIAKO HAITZULOA, BAIGORRIN		

Kike Amonarrizen umorea

Jerusalemgo Erosten Harresian



Israeli buruzko dokumentala egiten ari zen BBCko erreportari bat Erosten Harresira joan zen. Harresiari itsatsita erreztatzen ari zen aitona batengana hurbildu eta honelaxe galdetu zion:

- Egun on! Hannah Taylor naiz, BBCkoa, eta galdera batzuk egin nahi dizkizut. Esangoz zenidake zure izena?
- Jacob Fishbein.
- Eta noiztik atoz erreztatzen Harresira?

- Azken 61 urteetan egun bakar batean ere huts egin gabe etorri naiz.
- Zer eskatzen diozu Jaungoikoari?
- Judu, kristau eta musulmanen arteko bakearen alde erreztatzen dut.
- Eta nola sentitzen zara 61 urtez egunerok erreztatzen aritu eta gero?
- Egia esan, horma batekin hizketan aritu izan banintz bezala!

Soluzioa

E	F	I	L	L	A	L	I	H	E	E	A	P	A	R	O	U	S	O	S	I	O	A	U	Z	A																
I	A	G	A	I	N	A	L	N	I	H	A	E	L	E	U	D	A	R	E	U	A	P	A	R	O	U	S	O	S	I	O	A	U	Z	A						
M	A	D	A	R	O	J	O	R	D	E	N	I	H	A	E	L	E	U	D	A	R	E	U	A	P	A	R	O	U	S	O	S	I	O	A	U	Z	A			
G	A	L	A	R	O	J	O	R	D	E	N	I	H	A	E	L	E	U	D	A	R	E	U	A	P	A	R	O	U	S	O	S	I	O	A	U	Z	A			
Z	A	I	A	P	A	R	O	J	O	R	D	E	N	I	H	A	E	L	E	U	D	A	R	E	U	A	P	A	R	O	U	S	O	S	I	O	A	U	Z	A	
A	N	A	I	A	P	A	R	O	J	O	R	D	E	N	I	H	A	E	L	E	U	D	A	R	E	U	A	P	A	R	O	U	S	O	S	I	O	A	U	Z	A
U	N	A	I	A	P	A	R	O	J	O	R	D	E	N	I	H	A	E	L	E	U	D	A	R	E	U	A	P	A	R	O	U	S	O	S	I	O	A	U	Z	A



# Gau-beranduan eta ilunpeen bihotzean

ERALDATU egiten dira paisajeak gau-beranduan. Eder zena beldurgarri bihurtzen da eta beldurgarri zena eder. Giza-piztiak ere berdin: izango da sosegua bila erretiratuko denik eta baita ehizakiaren xerka abiatuko denik ere. Egunak utzitako nekeak ez du disimulurako tarterik uzten gau-beranduan. Maitaketa, konspirazioa eta sabotaia zainetan daramaten istorioak. Kantu eta poema zaharrak, bertsioak eta emanaldirako espreski ondutakoak. Malenkoniak bai baitu bere amorrua. Eta amorruak bere malenkonia. Mihise gaineko orban beltz batetik abiatzen den margolaria bezala, hari zerbaiten itxurantz emateko gero. Gau-beranduan eta ilunpeen bihotzean, giro horretan egingo dute topo maiatzaren 4an Joxan Goikoetxeak, Pettik eta Harkaitz Canok. Azken honek xehekatu digu ikuskizuna.

**Gau-beranduan. Petti, Harkaitz Cano eta Joxan Goikoetxea.**

**Estreinaldia:** Maiatzaren 4an, gaueko 22:00etan, Sutegiko auditorioan, Usurbil (Gipuzkoa). **Sarrera:** 10 euro. **Antolatzailea:** Jexux Artze Kultur Elkarte. **Babeslea:** Usurbilgo Udala. **Laguntzailea:** Noaual kultur elkarte.



Harkaitz Cano, Joxan Goikoetxea eta Petti.

**Betidanik senidetu dira poetak eta musikariak gauarekin, gauaren mistikarekin. Hortik ere izango du akaso 'Gau-beranduan' ikuskizunak?**

Topikoa da neurri batean, baina hor dago uste hori. Hiruok mahaiaren bueltan elkartu bezain pronto Joxan Goikoetxearen lehen galdera umoretsua horixe izan zen: "Zer egingo diagu, zerbait gau girokoa, artzain-poema lirikoak, happy happy...?". Ez galdetu zergatik, baina hiruok aurpegi-begiratu eta zirt-zart erabaki genuen gau girokoa zegokigula gehiago... Badago parrandaren epika hori, batzuetan faltsua dena, eta badago lanetik etxera nekatuta iristen denaren oda hori ere: errepasoa egiteko unea da gaua, atzera begiratu eta datorrenari aurre egiteko ordua. Deskantsua eta insomnia, lasaitasuna eta kezka, biak dauzka gauak. Horixe tonua: gauaren sosegua bate-tik, eta mamuak bestetik.

**Propio idatzitako testuak eta abestiak entzungo dituzte ikusleek ala**

**zuen aurreko poema eta kantuetan oinarritzen al da saio berri hau?**

Denetik egongo da: propio idatzitakoak, poema ineditoak eta zaharrak ere bai. Esperientziak erakusten dit hutsetik abiatuta baino giro politagoa lortzen dela askotan norbere kantu eta poema kuttunak erreskatatzen direnean. Horrek halako lur irmo bat ematen du, eta horren gainean inprobisatu eta eranstea errazagoa da. Gauza bera gertatzen da kantuekin: zenbait kanta ezagunak izango dira, beste batzuk berriak, eta ezusteko bertsioak, okasiorako propio egokituak ere entzungo dira.

**Nola sortu zen hirurok elkarrekin lan egiteko aukera hau? Lehen aldian izango da, akaso.**

Lehen aldian izango da, eta Joxeanjel Arbelaitzen bitartekaritzak du errua. Eskerrak bera bezalakoei, geure lotsak ezabatu eta zail eman lezakeena erraz bihurtzen dutelako. Joxan Goikoetxea lehendik ezagutzen nuen, baina Pettiren kantaera-

ren miresle izan arren, ez genuen elkar ezagutzen. Luxua da niretzat halako piztia eszenikoekin aritzea.

**Hiru artista oholtza gainean. Zein izango da bakoitzak beteko duen funtzioa 'Gau-beranduan'?**

Zenbait disziplinatuko dinamikan, bestea norbere eremura erakartzea da interesgarriena, eta norbere buruari bestearen eremura joaten uztea, inork nortasunik galdu gabe, halako imantazio gozo baten baitan... Tentsioa sor daiteke, kontrolaren zati bat bestearen esku uzten delako, baina hortxe dago erronka. Joxan Goikoetxea atmosfera sortzaile trebea da, ñabarduretan maisu, eta Petti edergarri behar ez duen kantaria da: abesteaz gain, primeran errexitatu dezake testua. Hori bai, ez dezala inork espero ni kantari entzutea, Joxanen erronka ezkutua hori zen arren...

Ima Ubeda



# Inurrien antolaketa sozialari buruzko xehetasun gehiago

APIRILAREN 18AN Lausanako Unibertsitateko (Suitza) ikerlari talde batek inurrien antolaketa sozialari buruzko artikulua argitaratu eman zuen *Science* aldizkarian.

*Camponotus fellah* espezieko 600 inurri berrak berrak banatu zituzten, eta ordenagailu bidez euren mugimenduak erregistratu zituzten 41 egunez. 10.000 milioi datu bildu eta aztertu ondoren, inurrien antolaketa soziala nolako zen garbi samar ikusi zuten ikerlariek.

Hiru multzotan banatzen dira inurriak. %40k, gazteenek, erreginak eta kumeak zaintzen dituzte. Beste batzuk (%30), zahartxoagoak, habia garbitzen aritzen dira, eta zaharrenek (%30) janaria lortzen dute. Zainketa lanetan aritzen direnak eta janaria lortzen dutenak bereizitako eremuetan bizi dira; zientzialariek uste dute erregina kanpoko bizkarroiegandik babesteko egiten dutela hori. Garbitzaileak, berriz, habia osoan mugitzen dira. ■



ALESSANDRO CRESPI

Ikerketarako erabili dituzten inurriak.



# Ura izan dezaketen bi planeta antzeman dituzte

KEPLER TELESKOPIOA baliatuz, Notre Dame Unibertsitateko (AEB) Justin Crepppek ikerlariak bi planeta detektatu ditu, orain arte aurkitutakoen artean gure Lurraren antz handiena dutenak. 1.200 argi urtera dagoen izar baten inguruan biraka dabilta eta Lurra baino pixka bat handixeagoak dira.

Bi planetetako batek 267 egun behar ditu bere izarraren inguruan bira osoa egiteko, eta besteak 122. Haitzez osaturik daudela uste da, eta izarrera bitarteko distantziagatik, posible litzake ur likidoa egitea horietan.

Kepler teleskopioa 2009an bidali zuen NASAK espaziora. Orduz geroztik 100.000 izar baino gehiago behatu ditu, eta horien inguruetan 2.740 planeta hauteman ditu. Aipatutako azken bi horiek dira ura, eta beraz, bizia izateko aukera handienak dauzkatenak. ■



Kepler teleskopioa.



## Erabilpen anitzeko material berria

Nanyang-eko Unibertsitatean, Singapurren, era askotako erabilpenak izan ditzakeen titanio dioxidozko nano-egitura sortu dute; hidrogenoa lortzeko, ura gezatzeko, eguzki-zelulak sortzeko, litiozko baterien iraupena luzatzeko, zauriak estaltzeko... erabil daiteke material berria. Gainera, orain arte funtzio horiek bete izan dituzten materialak baino merkeagoa da.

ttiki.com/49787  
(Gaztelaniaz)

## Zirkunzioak hiesetik babesten du

AEBetan egindako ikerketa baten arabera, zirkunzioa egina duten gizonek hies gutxiago, herpes gutxiago eta papiloma gutxiago dute. Antza, lehen larruzalak estaltzen zuen eremura oxigenoa sartzeak bizitzeko oxigenorik behar ez duten bakterioen kopurua gutxitzen du, eta horrek azaldu ditzake ikerketaren emaitzak.

ttiki.com/49788  
(Euskaraz)

## Hegazti gripearen birus bat, kezka iturri

“Hegazti birus” izendapena duten birus mota bat baino gehiago dago. Horietako bat, H7N9, ikerlarien kezka iturri bilakatu da, gizakien artean hedatzeko izan dezakeen erraztasunagatik. Oraingoz dakiguna da oso erraz mutatzeko dela.

ttiki.com/49789  
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com  
T.943 37 67 16



## Baratxuritarak

SAGASTIAK lorez janzten direnean bezalako ikuskizun gutxi. Oteizak zituen pilotalekuen eta jentil baratzeen pare dut nik sagastia. Eta oraintxe gorenean. Sagardoa eta sagarra bera deus ez lorerik gabe. Lili xume bat bizitza osoaren udaberri. Herri baten udaberri. Gogora ekarri: ez ginatke egungo Euskal Herririk sagastirik gabe. Eta ospatu.

Sagastian ez da soilik sagarrondo (*Malus x domestica*) loratzen. Ehunka landare loratzen da: azpiko aldeko belardian, enborretan

eta adarretan ditzuten apopiloak... Denek osatzen dute sagastiaren loraldia. Edozein ekosistematan bezala, sagasti batean zenbat eta lore desberdin gehiago, orduan eta sasoi hobea. Sagasti batean lore mota gutxi bada, argil Tratatzeko produktu asko erabiltzen denaren adierazle. Beraz, lore mota asko eta oparo duen sagastiko sagar eta sagarkiak jan-edan.

Sagarrondoaren lilitze-lagunetatik baratxuriek (*Allium* sp) arreta pizten didate urtero. Eta gero eta gehiago. Maizago topatzen baiti-

tut, sagastiz landa ere, bakoitza bere usain, dasta eta kolore ñabardurekin. Gure herrian *Allium* generoko hauek behintzat topa ditzakegu: *A. ampeloprasum*, *A. ericetorum*, *A. guttatum* subsp. *sardoum*, *A. moly*, *A. moschatum*, *A. naepolitenum*, *A. oleraceum*, *A. paniculatum*, *A. pyrenaicum*, *A. roseum*, *A. schoenoprasum*, *A. senescens* subsp. *Montanum*, *A. stearnii*, *A. sphaerocephalon*, *A. triquetrum*, *A. ursinum* subsp. *ursinum*, *A. victorialis*, *A. vianale*. ■



JAKOBA ERREKONDO

## Orioko alkate-zigorra

AZKEN HOGEI URTE HAUETAN zenbat zuhaitz hil ote dugu desbrozadora edo motosegaz? Milaka eta milaka. Herritarron ondarearen puska eder bat. Herrietan eta hirietan belazei motz-motz eutsi behar horretan desbrozadora lanabes nagusi bilakatu da. Malgua da eta beste tresnak iritsi ezin diren bazterrak, zintarri-ertzak eta zuhaitz ipurdiak garbitzeko egokia da. Eta makina darabilenak ez daki zuhaitzen berri. Eta ez daki azala joz gero zauri latzak egiten direla. Eta zauri horiek izerdiaren gora-behera eragozten dutela. Eta buelta

osoa zaurituz gero zuhaitza hil egingo dela. Makinistak ez daki.

Makinistaren arduradun teknikoak eta hari kontratua egin dionak merezi dituzte bizkarrekoak. Zigor makilarekin danba eta zarta.

Argazkikoa Orioko maspil edo basagurbe bat da, *Sorbus torminalis*. Herriko beste makina bat zuhaitz bezala zigortua. Alkateari eta lorazainari emango nieke nik. Hagintearen makila den alkate-zigorrarekin berarekin, adibidez. ■

# Literaturak idazle handiei ere jaten ematen ez dienean

SAN FRANCISCO (AEB), 1889. Hamahiru urte besterik ez zituela Jack London idazlea (1876-1916) Hickmott ontziratze fabrikari lanean hasi zen. Egunero hamabi eta hamazortzi ordu bitartean ematen zituen lantokian, eta baldintza gogor horiekin nazkatuta, legez kanpoko ostra-bilketan hasi zen. Alderai ere ibili zen, kartzelatik pasa zen eta errearen sukarrak harrapatu zuen. Mende berria estreinatzearekin bat, London inprenta teknika berritzaileak erabiltzen hasi zen bere idazlanak merke argitaratzeko eta, hala, 25 urte zituela, literatura bizibide izatea lortu zuen.

Wallace Stevens (1879-1955) abokatu lanetan aritu zen poeta arrakastatsua izan baino lehen, baina Londonek ez bezala, zuzenbideari eutsi zion arrakasta lortu ondoren ere. Henry David Thoreau familiaren arkatz fabrikako langile izan zen –idazteko materialean aurrezteko aukera izan zuen behintzat–; Charles Dickens betun fabrika batean aritu zen; Arthur Conan Doyle oftalmologoa zen; eta Richard Wright, postaria.

Zenbait lanbide alternatiboak karrera literarioan lagundu zion. Langston Hughes-i (1902-1967), jatorri baten zerbitzari ari zela, Vachel Lindsay poetaren mahaia zerbitzatzeko egokitu zitzaion. Zoparekin batera berak idatzitako olerki sorta eman zion Lindsayri, eta



**Ernest Hemingway Gurutze Gorriko anbulantzia batean, Italian, 1918an. Hainbat idazleek jardun zuen joan den mendean anbulantzia gidari lanetan, diru beharrak baino gehiago gerrak bultzatuta.**

ERNEST HEMINGWAY PHOTOGRAPH COLLECTION

bere bizimodua goitik behera aldatu zen handik aurrera.

Beste zenbaitentzat inspirazio iturri izan ziren halabeharrezko lan horiek. Ostra, urre edo arazo bila ibiltzeak eragin handia izan zuen Jack Londonen obran. Eta gasolindegia batean lan egitea ziur aski lagungarri izan zen Jack Kerouacentzat *On The Road* errepide-nobela idazteko.

Idazleen “beste” lanbideetan ohikoenetakoa, harrigarria badi-rudi ere, anbulantzia gidari izatea izan zen joan den mendean. Ernest Hemingway, Dashiell Hammett, E. E. Cummings, W. Somerset Maughan, John Dos Passos eta Archibald MacLeish zaurituak garraiatzen aritu ziren, Lehen nahiz Bigarren Mundu Gerretan. Beraz, diru faltak edo inspirazio beharrak baino gehiago, gerrak eraman zituen anbulantziak gidatzera.

Aipatutako idazle guztien artean emakumerik ez dago, ez idaztea denbora osoko jarduna izateko zortea izan zutelako, soldata eta aitorpenik gabeko lanetan jardun ohi zutelako baizik. Eta sarritan

idazle izateko aukera ere ukatzen zitzaion, Brontë ahizpei bezala. Emilyk eta Annek gizonezko izenordeak asmatu zituzten lanak argitaratu ahal izateko, eta Charlottenk zurriz zituen pataten artean ezkutatu behar izaten zituen *Jane Eyre* maisulanaren eskuizkribuak. ■



## Arrastoak

### Gorrotoa, Hitlerren karismaren sekretua

FELLOWSHIP OF THE MINDS



LAURENCE REES historialari eskoziarra Hitlerren arrakastaren gakoa azal-tzen ahalegindu da enegarrenez *The Dark Charisma of Adolf Hitler* liburuan. Reesen arabera, karisma ez doa beti ezaugarri positiboekin lotuta, eta Hitlerrek transmititzen zuten “gorroto ahalmen mugagabea” giltzarri izan

zen nazien goraldian. Gainera, karisma ez omen dago beti norberaren baitan, besteen begietan baizik, eta, hortaz, 1930eko hamarkadako Alemaniaren egoera funtsezkoa izan omen zen urte batzuk lehenago Hitler ero irrigarritzat zuten herritarren babes leiala lortzeko. ■



# «Gipuzkoarrek ezkerreko gobernuak nahi dituzte»

Arrasatearra da. Badajozko Quintana de la Serenan jaioa 1972an. Abokatu. PSE-EEko kidea. Arrasaten eta Pasaian zinegotzi izana. Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente ohia. 1995etik Juntetxeetako batzarkidea da, Deba Garaikoa hasieran eta Donostialdeakoa gaur egun. Talde sozialistaren bozeramailea da uneon. Foru eta udalerrietako gaietan zaildua eta ikasia.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



BATZAR NAGUSIAK izan dira bere eskola politikoa: “Oso pozik nago Gipuzkoako politikan aritzeaz. Biziki eskertzen dut Juntetxeek eman dizkidaten formazio pertsonala eta politikoa, eta harro nago beraien presidentea izan naizelako”, diosku PSE-EEko Rafaela Romerok.

Garraio publikoaren bultzatzaile sutua da: “Hala ere, garraio publikoa ez dut erabili 20 urtetik 40 urtera

bitartean bizkartzainekin ibili naizelako, baina aldekoa naiz guztiz. Oso zalea naiz, orain ikasten ari naiz ibiltzen”. Romero kritikoa da Gipuzkoako garraio publikoarekin –eta Euskal Herrikoarekin orobat– kohesioa arrunt eskasa dela dio: “Debabarrenekoa naiz. Errazagoa da Arrasatetik Bilbora joatea, Donostiarat etortzea baino. Gainera, Donostialdean errazagoa –eta merkeagoa– da ibiltzea Debabarrenean baino”.

**Zein da emakumearen zeregina politikan?**

Emakumeok badugu politikan parte-hartzea Berdintasun Legea tarteko, EAEko legea barne delarik. Alabaina, Batasunetik PPra bitarte, alderdi guztien proiektuak matxistak dira, gizartea halakoxea delako. Martin Garitanori esan ohi diot “iraultza egiteko ere, gizonetakoek dituzuen eskubide berak nahi ditut”. Politika, funtsean, alderdien



**“Egiguren politikara gelditzeko etorri zen, liderra da, historia egingo du. Maitasun anitzak jaso ditu jendartean, eskola sortu du, Arnaldo Otegi bezala”.**

bileren ondoren egiten baita, egunero, arratsaldeko 7etatik aurrera. Gizonak elkarteetan tabernetan, poteoan ari direnean.

### **Krisi garaian atzera egin dugu arlo horretan, akaso?**

Emakumeok Berdintasun Legea lortu genuen, baina praktikan berdintasuna ez da inoiz izan. Krisian atzera egin dugu, inboluzioa izan da. Lorpenak galdu ditugu. Gurekikoa ez da beste edozein kolektiboekiko diskriminazioa, gurea genetikoa da, sortuz geroztikoa. Pobreziaren eta biolentziaren feminizazioa areagotu da berriz ere. Lanbide-ko eta Eustat-eko datuek hori berretsi dute. Gipuzkoan emakumeak dira lan baldintza kaxkarrak jasaten dituztenak. Eta errematerako, PPK enpresetako lan auziak bideratzeko –adiskidetzeko– protokoloak ezabatu ditu.

### **Adiskidetzeko garaian gaude. Ahotsak kolektiboaren inguruan ere ari zara. Nondik nora? Zer moduz?**

Ahotsak-ekin harremana daukat, ideologia eta lanbide ezberdineko pertsonak gara. Batzar Nagusietako bake eta normalizazioaren txosten-ekimenaren presidentea naiz, baina egia esan, nahiago dut ekimena Ahotsak kolektiboarekin ez nahastea. Harro nago txostenaren ardura izateaz, baina tentuz jardun behar dut. Noski, horrek ez du kentzen Ahotsak-eko lagunekin jardutea.

Bizikidetasuna eta bakea jardunez lortzen baitira, ez egin behar dugula esanez.

### **Emakumearen izaerak bidea erraztu dezake zeregin horretan?**

Emakumearen ahotsa ezinbestekoa da bake prozesuetan, emakumeak berezko izaera baitauka, diskriminazioaren menpekotasuna jaso baitu mendez mende. Emakumeak izaera jasankorra dauka, langilea da, eta konpromisoa ere aise hartzen du. Beraz, bakea eta bizikidetasuna lortzeko bidea samurtzen du.

**“Bizikidetasuna eta bakea jardunez lortzen dira, ez egin behar dugula esanez”**

Pili Zabalak –Lasa-Zabala auziko Joxi Zabalaren arreba– “Eskerrik asko, Rafaela Romero” izeneko artikulua idatzi zuen *Berria* egunkarian, zerorrek “Biktima guztiei egindako begirada” izeneko idatzi ondoren.

Pili nire laguna da. Artikulua idatzi nuenetik ezagutzen dut, euskaraz hitz egiten dugu, asko ikasten ari naiz berarekin. Harro nago eskutitza idatzi izanak. Sentitzen duguna adierazi behar dugu, biktima guztiei zor zaie onarpena, baina berauek ezagutzea ezinbestekoa da. Ezagutu gabe ezin

duzu esan “erreparatze morala, politikoa eta soziala egin ditut”. Adibidez, Batasuneko munduak ez du ezagutzen gure sufrimendua, horregatik ez du oraindik guztiz onartu.

### **Garai berrian omen gaude, baina normalizazio bidea blokeatua dago. Segi auziko gazteak espexeratuak...**

Egon naiz beraiekin eta “une hauek ez dira errazak” esan diet. Justiziak epaia eman du eta bete behar da. Hala ere, garai honetan bestelako espexeko politikak aplikatzeko legeak badaude eta erabili behar dira. Ezin da ibili luzamenduetan, baina ezta ezker abertzalea ETaren biktimgana hurbiltzeko ere. Gehienek ez dute egin. Nik berek bizi izan dutena entzun dut, eta nahi nuke neronek hogeitaz bizi izan dudana ere haiek ezagutzea: ETaren mehatxupearan izan naizela entzutea. Hor dago soluzioa. Gauza hauek ez dira Moncloan egiten. Uneon, PPren Gobernuak erantzule izan behar du euskaldunon eta Espainiaren aurrean, bakea egin behar du, baina guk herritarrok zabaldu behar dugu bidea.

### **Bide luzea dago egiteko oraindik.**

Noski. Familiak eta euren sufrimendua ezagutu behar ditugu. Ni Santi Brouarden omenezko ekitaldira joango naiz –edo Zabala eta Lasaren omenaldira; inoiz egin ez dena, eta bidezkoa ez dena– baina ez badut ezagutzen familia, alferrikakoa da. Hedabideetan agertuko naiz, baina ez da benetakoa. Adibidez, Laura Mintegik Fernando Buesaren familia ezagutu izan balu, ez zukeen esango Legebiltzarrean esan zuena, ziur nago horretaz. Eta gainera, agian, ez zen modu okerrean interpretatuko berak esana, fiskalak esan duenez. Baina garrantzizkoena ez da fiskalak esatea Mintegiren hitzak ez direla delitu, bere hitzek familiartekoei min egin zietenla baizik.

### **Formak landu eta zaindu behar dira.**

Bai. Nik Pili Zabala ezagutzen dut eta ez dut Joxean eta Joxi arazo politikoengatik hil zituztela esango. Zer bait gehiago behar da. Gure arteko enpatia ez da sortuko kontakizuna inozoa eta inposatua bada, benetako ezagutzaren ondorioz baizik.



Jesus Eigurenek, zure senarrak, bake prozesuan egindako lana ongi baloratu al da euskal jendarlean?

Bai. Liderren eta proiektuen faltan gaude, konpromisoa eta esperantza ematen dituzten indarren eta ekimenen falta. Eiguren gelditzeko etorri zen politikara, liderra da, historia egingo du. Maitasun anitzak jaso ditu jendarlean, eskola sortu du, Arnaldo Otegi bezala. Une batez belaunaldi berrien alde egitea erabaki zuten, modu eman-korrez. Beren akatsekin, jakina, inor ez baita perfektua.

**Arnaldo Otegi ezagutu duzu?**

Ez. Kartzelara joan naiz bera bisitatzea, Jesusen bitartez. Otegi badu bere iragana, nik ez dut justifikatuko. Hala ere, ezker abertzalean bera da gehien egin duena gauden egoeran egoteko. 2003an Eigurenekin eseri zen eta odoluste hura geratzeko konpromisoa hartu zuen.

**Orain garesti ordaintzen ari dena.**

Bai, zoritxarrez. Guk Batasunari esaten genion “politika egin, politika egin...”. Otegiaren taldeak Bateragunea antolatu zuen hilketak geldiarazteko eta orain kartzelan sartu dituzte. Ez dut onartzen, noski.

**Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Foru Aldundian bestelako fiskaltasuna lantzen ari zarete...**

Pozik nago fiskaltasunarekin, pauso sendoak eman baititugu nire idazkari nagusi Patxi Lopezek eskatzen zuen politika gauzatzeko. Hau da, diru sarreretan iraultza moduko bat behar dugu euskal ongizatearen estatua bermatzeko, eta ez berau suntsitzeko; Iñigo Urkullu lehendakariak aurkeztutako aurrekontuen bidez egin nahi duen bezala. Ez dugu 30 urtez lan egin, oraingo autogobernu maila eta autonomia fiskala –osatu gabea oraindik– galtzeko, ezta diru gutxiago dutenek gehiago ordaindu dezaten eta gehiago dutenek gutxiago.

**EAEko politika fiskalak harmonizatzeak aukera ikusten duzu?**

Noski. Eusko Legebiltzarrean gehiengoz onartu berri da horren aldeko proposamena. Herri bat gara, eta egunen batean Nafarroa barne badago, hainbat hobe. Bilduk aurkeztu du proposamena eta PSEren sostenguz aurrera ateratu da, baita UPyDren sostenguz ere. Nahiz eta UPyDk gaur gauza bat esan eta bihar beste bat egin. Dena dela ere, Iñigo Urkulluren gobernu gutxiengoan dago, Jaurlaritzak beteko al du Legebiltzarrak eskatu dioena?

**Zer iritzi duzu Martin Garitano buru duen Foru Gobernuaz?**

Azkoz gehiago egin lezakeela. Gehiago espero nuen, benetan.

**Fiskalitatean ados jarri zarete, aurrekontuetan ere bai...**

Bai. Fiskaltasuna hobetu da, alderdi sozialistekin batera ere aurrekontuak onartu dira. Baina Bilduk 2011n hartu zuten gobernuaz, 2013n gaude eta hutsaren hurrengoa baino ez du egin. Gobernu honek gure sostengua jaso zuen ekonomia sustatzeko eta enplegu sortzeko, haatik, ez dago krisiaren aurkako plan bat bera ere. Aurrekontuetako gure zuzenketa bati esker zortzi milioi euro onartu eta bideratu ziren ekonomia-eragileak eta enplegu politikari ekiteko, ez da beste ezer egin. Garitanoren gobernuak ez du proiektu estrategikorik. Bilduk gabeziak ditu alor horretan, izugarria da. Gipuzkoarrak zaborren inguruko proiektuetz gain, beste zerbait espero dute, ez soilik egunero zaborra gora eta zaborra behera ibiltzea.

**Gobernatzeak garai zailak izaki.**

Baina bitartekoak badaude, eta asko. Foru Aldundiaren sustapenerako gaitasuna itzela da, hainbat arlo kudeatzeko aukera dauka, baina ez dute ezer egin. Propaganda politiko gutxiago eta gizarte arloan kudeaketa gehiago behar dugu. Garitanok enpleguaren alde lan egiteko konpromisoa hartu zuen eta bi urteren ondoren ez dago emaitzarik. Orain lehenetasuna gastu soziala handitzea da enplegua

**VITORIA GASTEIZ**  
green capital

*Gasteizen euskarazko hauek ez galdu*

**GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!**

*\*Gonbit-txartelak astebete lehenago*

**ALDABE**

> **Mundipurdiako ipuinak**  
Maite Franko, ipuin kontalaria  
Maiatzak 6,  
17:30 (3-5 urte) - 18:15 (5-8 urte)

**IBAIONDO**

> **Matulutulu (Afrikako ipuinak)**  
Maite Franko, ipuin kontalaria  
Maiatzak 7,  
17:45 (3-4 urte) - 18:30 (5-7 urte)

**ARRIAGA**

> **Munduko ipuinak**  
Izaskun Mujika, ipuin kontalaria  
Maiatzak 10, 18:00 (3-6 urte)

**ARANA**

> **Txin-txin magikoa**  
Maiatzak 12, 19:00 (5-12 urte). 3 euro

**JUDIMENDI**

> **Oharrak ipintzeko imanak**  
Lantegia  
Maiatzak 14, 18:00 (7-10 urte)

**ABETXUKU**

> **Paperezko ipuinak**  
Patrizia Eneritz (ipuin kontalaria)  
Maiatzak 14, 18:00 (4-8 urte)

**PILAR**

> **“11 kantatzeko”**  
DVDaren aurkezpena  
Maiatzak 17, 18:00 (4-8 urte)

**IPARRALDE**

> **Sukaldaritzaren osasungarria**  
Lantegia  
Maiatzak 14, 19:00 (+14 urte). Euro 1

**DANTZA PLAZA**

> **ESPAINIA PLAZA**  
Maiatzak 10, 20:00  
Maiatzak 24, 20:00  
Maiatzak 31, 20:00

**PRINCIPAL ANTZOKIA**

> **SIDECAR ARIMA**  
Musika eta literatura  
Harkaitz Cano - Gorka Barandiaran  
Maiatzak 15, 20:30

**UDALAREN OPOR PROGRAMA**

Jolas txokoak, udako ludotekak,  
Musika, bai! , udaleku irekiak,  
kanpamentuak hondartzan...  
Maiatzean izena emateko epea

*Maita duzun hura, euskaraz!*


 Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala

“Ahuntzak mendira jotzen du eta EAJk Sabin Etxera. Etsitzeko modukoa da egoera. Jendea izorratuta dago, eta Gasteizko Gobernuaren aldetik ez dugu enplegua bultzatzeko plan sendorik ikusten”.

sortzeko, langabezia drama soziala da, batez ere herritar xumeentzat. Guri oposizioko beste alderdien kritika zaparrada etorri zaigu: “Erotu ote zareten”, dioskute. Bilduk diru transakzioa gure laguntzaz bideratu baitzuen.

**Hondakinak direla eta, adostasuna ez da oraindik gauzatu.**

Ni PIGRUG (Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra) planak ezarritako ereduaren alde nago, beste alderdi guztiek onartzen dutena. PIGRUGk birziklatze tasa bat ezarri zuen. Batzuk bosgarren edukinontziaren alde gaude, birziklapen tasa hori betetzeko, eta badaude atez ateko sistema lehenesten dutenak. Beraz, ezin esan “bosgarren edukiontzia inposaketa da” eta “atez ateko sistema ez”. Bilduk badaki inposaketak ez direla onak, ez ezker abertzalea gobernuan dagoenean, ezta dagoenean ere. Zaborraren arazoa gehiengoan akordioaren bidez konpondu behar da, alderdien artean, eta batez ere Bilduren, EAJren eta PSEren artean. Gobernuak badaki irtenbidea denon artean akordiora iristea dela, ez dago beste irtenbiderik.

**Udal bakoitzak bere erabakiak har ditzake, ordea.**

Horixe bera. Udalerrri bakoitzeko udalbatzak hartzen ditu erabakiak, parte-hartzea dena dela ere. Ondorioak? Hauteskundeetan ikusiko da herritarren borondatea errespetatu duen ez edo. Udal eskumena da, jakina, eta errespetatu behar da.

**Errauskailua beharrezkoa al da zuretzat? Inork ez du bere etxearen ondolan nahi.**

Bilduk ez du errauskailuaren kontra guztiz egin. Dioenez, zegoen proiektua ez zegoen ondo diseinatua. Desproporzionatua zela, balioztatuegia. Bere erabilera ondo neurtu behar da, noski. Ekologistek, eta jende askok, ez dute nahi. Baina badago beste



jende bat, ezker abertzalekoa barne, ez duena ezer esaten errauskailuaren aurka. Beraz, azkenean, denon arteko akordioa behar dugu, eta posible da. Akordioak inplizituki eduki behar du proiektuaren tamaina egokia, Zubietan dauden azpiegiturak kontuan hartuz betiere. Bilduk badauki akordioetara iritsi gaitezkeela, baita EAJk eta guk ere. Besterik da EAJri eta ezker abertzaleari borroka horri eustea komeni zaien beraien interesen alde egiteko. Espero dut kontrakoa izatea.

**“Gipuzkoako zaborraren arazoa gehiengoan akordioaren bidez konpondu behar da, eta batez ere Bilduren, EAJren eta PSEren artean”**

**Gipuzkoako politikan zerk batzen zaituzte EAJrekin?**

Bada, Gasteizko Legebiltzarrean ikusi duguna ikusita, ezer gutxi. EAJ Legebiltzarrean irabazle denean Gipuzkoak galtzen du. Gipuzkoa lurralde oso konplikatu da, aniztasun politikoa itzela da hemen. Pentsa, Donostia Europako Kultur Hiriburua 2016 izatea bulkada izugarria da hiriaren garraioa, azpiegiturak eta ekonomia sustatzeko. Bada, EAJ uzkur agertu zen.

Bilbon izan balitz, ez. EAJk Donostialdeako Metroari ez, Bilbokoari bai noski. Ahuntzak mendira jotzen du eta EAJk Sabin Etxera. Hara, Nafarroarekin joan beharko dugu, Euskal Herriaren jatorria baita, eta ez Bizkaia. Etsitzeko modukoa da egoera. Jendea izorratuta dago eta Gasteizko Gobernuaren aldetik ez dugu enplegua bultzatzeko plan sendorik ikusten. Hori bai, inbertsio pribatuen aldeko ekimenak sustatzeko gertu betiere.

**Markel Olano nola ikusten duzu?**

Ez dut ikusten, ez dugu asko hitz egiten. EAJ lekuz kanpo dago. Joseba Egibar jaunak ezker sozialistarekin bukatu nahi zuen Gipuzkoan. Bilduk irabazi zuen herrietan –Errenterian, Donostian edota Lasarten...– gobernatu nahi zuen, sozialistok traba egiten geniolako. Gero, aldi berean, Garitanoren Gobernu alternatiboa tratatzen saiatzen ari da, ezker abertzalea –bere kudeaketa eskasa dela medio–apurka galbidera joan dadin. Gipuzkoarrek Bildu gehiengoz bozkatu zuten, Egibarrek Gipuzkoa zigortzen du. Foru Gobernu honen aurkako politika ondo edo gaizki ateradakioke EAJri, baina bien bitartean ez dugu ezer eraikitzen. Dena den, EAJk besterik pentsatzen badu ere, gipuzkoarrek ezkerreko gobernuak nahi dituzte. Errealitate politikoa oso kaskagorria da. Geroak esango du. ■





# GAU- BERANDUAN

---

*Eraldatu egiten dira paisajeak  
gau-beranduan. Eder zena  
beldugarri bihurtzen da eta  
beldugarri zena eder.*

---

PETTI

HARKAITZ CANO

JOXAN GOIKOETXEA

Maiatzak 4  
22:00

Sutegi Kultur Etxea

Usurbil



 **argia**



# Familia bereko hizkuntzak ikasteko metodoa

Europako hizkuntzak ikasteko ahaleginak arindu nahi dituen irakasbide berritzailea da EuroCom. Ez da, alabaina, hizkuntza jakin bat irakasteko metodo bat gehiago, familia bereko hizkuntzak batera ikastekoa baizik.

| ELENA MARTINEZ RUBIO |

Argazkia: Tilbert Stegmannek utzia

EUROCOMEN PREMISA NAGUSIA ondoko hau da: hizkuntza berriak ikasi nahi dituen ikaslea ez da hutsetik abiatzen, baldin eta familia bereko beste hizkuntza bat ezagutzen badu.

Izan ere, hizkuntzak banaka irakatsi beharrean, beste mota bateko hurbilketa eskaintzen du EuroComek, hizkuntzen senidetasun harremanak baliatuz eta hizkuntza batetik bestera dauden urratsak sistematikoki erakutsiz. *Intelligent guessing* (asmatze azkarra) delakoaren bidez, gai izaten da ikaslea hizkuntza batean dituen ahalmenak familia horretako beste hizkuntzetara eramateko.

EuroComek transferentzian oinarrituriko ikaste-ekonomia zehatz bat garatu du, batez ere irakurmenari eta ahozko ulermenari begira. Europako hainbat unibertsitateetako estudianteeekin egindako ikerketen bitartez ebaluatu dute.

Hizkuntza erromanikoez osatzen duten familiako adibide erraz-erraz bat ekarriko dugu hona: frantsesezko *nuit*, italieraz *notte* eta gaztelaniaz *noche* denez, frantsesezko *lait*, italieraz *latte* eta gaztelaniaz *leche* izatea espero dezakegu, arrazoi osoz.

Baina beste kontu bat dugu ardatz EuroComen: estatu zentralistek eta merkatu handien legeek dakarten hizkuntza minorizatuen bazterketari aurre egiteko ere sortu



Tilbert Stegmann EuroComen fundatzaileak EuskoCom sortzea proposatu du.

zela. Horrexegatik, hiztunen aldetik “txikiak” diren hizkuntzak hizkuntza “handien” parean ageri zaizkigu bertan.

Frankfurteko Goethe Unibertsitateko Tilbert Stegmann irakaslea

izan zen 1980ko hamarkadan EuroComen sortzailea. Handik aurrera, beste unibertsitate eta lankideekin elkarlanean burutu zen proiektua. Hizkuntza erromanikoen familiarekin hasi eta familia eslaviar nahiz



Tilbert Stegmann, EuroCom-en sortzailea

## «EuskoCom eskuragarri balego, batuaren eta euskalkien elkarbizitza emankorra bultzatuko genuke»

EUROCOMPREHENSION irakats metodoa sortu zuen katalan-alemaniarrek EuskoCom lantzeko proposamena egin digu euskaldunoi.

**Hizkuntza “nagusiagoak” beti saiatzen dira besteak ezkutuan gordezten, esan zenuen behin.**

Zoritzarrez, zuzena da esaldi horrek dioena. Guk berriz, ahal den guztia egiten dugu Erromanistikako gure estudianteez ez dezaten bakarrik espainieraren eta frantsesaren berri izan, baizik eta lurralde erromanikoetako hizkuntza eta kultura guztiena. EuroCom ikastaroetan, bi hizkuntza ikusi ordez, hamaika ezagutzeko parada izaten dute. Horrela oharitzen dira beste hizkuntza “txikiagoak” frantsesetik eta espainieratik hurbil daudela, eta hizkuntza horiek guztiak bereganatzea erraza izan daitekeela, EuroCom metodoari esker.

**Ez dirudi euskarak, europar hizkuntza bada ere, halako proiektu batean tokirik izan dezakeenik, seniderik gabea da-eta. Bestalde, euskara euskalkiek eta batuak osatzen dute.**

Ildo horretatik doa nire proposamena. Euskaraz dakiten guztiei zuzentzen zaie, berdin zein “eus-

kara” egiten duten. Helburua ez da erdaldunak euskalduntzea, euskara barruko elkar ulertzea baizik. Euskaldunei euskararen “aldagai” guztiak ikasteko baliabide azkarrek eskaini nahi genizkieke, EuroComen hizkuntza familiak ikasteko landu dugun metodoa euskarara moldatuz, hain zuzen.

**EuroCom eredu hartuta, EuskoCom bat eratzea proposatzen duzu hortaz, batua bai, baina euskalki guztiak ere aintzat hartzeko.**

Esan gabe doa euskaldunek batuaren beharra dutela. Halere, euskaldun bakoitza bere euskalkiak bizirik jarraitzeko duen eskubideaz jabetu behar da. Hots, batuak eta beste euskaldunen euskalkiek duten eskubide berbera. EuskoCom ikastegiaren eta eskoletan eskuragarri balego, batuaren eta euskalkien elkarbizitza emankorra bultzatuko genuke, baita hizkuntzan funtsatutako euskaldun guzti-guztien autoestima sendotu ere. Beste euskalkiekiko begirunea suspertuko genuke beraz, eta euskalkia erabiltzen duten euskaldunoi batuari beldurra galtzen lagunduko genieke bide batez.

**Euskararen ezagutza maila hobetzeko metodoa al litzateke?**

Batua nahiz euskalkiak, euskara maila orokorraren osagaiak dira. Gure mezua zera da: euskalkiak ez dira elkar ulertzeko oztopo; aitzitik, aberastasunaren adierazgarri dira. Euskara hizkuntza garrantzitsua da eta “aldagaiak” ditu, hizkuntza guztiak bezalaxe. Euskalkia erabiltzea batua erabiltzea bezain ondo ikusia egon beharko litzateke. Merezi du, batuaz gain, gutxienez beste euskalki bat jakitea; edo euskalkiaz gain, batua ere jakitea. Ulertze maila lortzea bederen, ez da zaila. Horretarako, lexikoaren eta sintaxiaren arloko desberdintasun eta korrespondentzien zerrendak, aldaketa fonetikoak, eta abar prestatuko genituzke hizkuntzalariok, EuroCom-en metodologiari jarraituz. Gakoa gure *Zazpi galbabeak* izeneko liburuan dago.

*Iñaki Gaminde eta Urtza Garay EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikako irakasle eta Aholdikerreko kideek interesgarri iritzia diote proposamenari. Tilbert Stegmannen egitasmoak aurrera egingo balu, Frankfurtuko Unibertsitatearen eta EHUren artean gauzatutako proiektua litzateke EuskoCom. Orain, euskara-alemana bizitegia digitalizatu eta sarerako egokitzen ari dira bi unibertsitateak elkarlanean.*

germaniarretara zabaldu da metodoa dagoeneko.

1941ean, Bartzelonan (Herrialde Katalanak) jaioa, Erromanistika Saileko katedraduna da Stegmann. Frankfurtuko euskara irakurletza-

ren sustatzaileetako bat, eta batik bat katalana biziki maite duen katalanista ospetsua. Kataluniaren independentziaren aldeko sutsua da eta Aleman Katalanisten Elkartearen, Katalan Kultur Bulegoren

eta Katalanistikako Aldizkariaren fundatzailea. *Catalunya vista per un alemany* (La Campana, 1988) liburua 13 argitalaldi izan ditu. ■



Babeslea: Hernaniko Udala



**Bizikletaz bizi, Euskaraz mugitu.**

# Etikak argi egin diezaioke zaborren kudeaketari

Hondakinen kudeaketa aldatu beharrak piztu duen eztabaida beroan sistema batzuen eta besteen dohai eta kalteak alderatzerakoan sari mahairatzen dira irizpide teknikoak. Antonio Casado da Rochak proposatzen du etikatik ere begiratzea gaiari.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ANTONIO CASADO DA ROCHA (1970) filosofo eta ikerlariak Dilemata.net gunean plazaratu dituen hiru artikulutan landu du hondakinen kudeaketarako eredu ezberdinen eta etikaren arteko harremana. Euskaraz publikatutako *Esku Ezkerraz* poema liburuaz gain, gaztelaniaz etikaz eta desobedientziaz dauzka gutxienez beste hiru. Donostiako ospitalean batzorde etikoko kide izana da, eta gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean ari da Biologiaren Filosofia arloko ikerlanetan. *Ética y gestión de residuos* lana plazaratu du hiru ataletan.

Apirilaren 23ko datarekin Dilemata.net-en jarri duen artikuluari “*Ética y gestión de recursos (3): espacio y tiempo*” ipini dio izenburu (Etika eta baliabideen kudeaketa (3): espazioa eta denbora), azken esaldi honekin bukatzeko: “*Pero adelanto las conclusiones: creo que el PaP nos hace mejores, en el sentido de que nos hace ciudadanos que reciclan más y consumen de manera más consciente.*” Hemen eskainiko dugu euskaraturik artikulua zatirik handiena:

## Etika eta baliabideen kudeaketa (3): espazioa eta denbora

*El Diario Vasco*k atzo ezagutarazi zuen Beraun auzoko (Errenteria, Gipuzkoa) bizilagunek zera erabaki zutela ohiko batzar baten “gai ordenatik kanpo”: uko egitea Atez Ateko Bilketari (AAB) eta auzokonpostatzeari, aldi berean sustatuz inguruan daukaten San Markoseko zaborregia



Donostiako ospitalean batzorde etikoko kide izana da Antonio Casado da Rocha; egun Biologiaren Filosofia arloan ari da ikerlanean EHU-n.

ixtea. Hondakinak bereizi behar ez baldin badira eta lurperatu ere ez, zer egingo da haiekin? Bost edo gutxiago edukiontzi (5E, 4E...) kolektiboen ohiko sistemak ezin du aski birziklatu errauste planta saihesteko adina, baina Beraungo auzotarrek ez dute eman iritzirik hura kokatzeko lekuaz. Ez dut uste hurbil nahiko dutenik, dozenaka urtez soportatu ondoren zaborregi batek dakartzan kirats eta arriskuak. Beharbada gehiengoak nahiko du, besterik gabe,

agintariek arazoa kendu diezaien begien aurretik, beste gaietan bezala. Baina gauza batzuk ez dira desagertuko guk gehiago haietan pentsatzen ez dugulako.

Hogeita hamar urtez bizi izan naiz Errenterian eta hamar baino gehiagok Hernanin, Gipuzkoan AAB ezartzen aitzindarietako izan den herrian, eta beraz ondo ezagutzen ditut aipatu hondakinen bilketa sistema biak (AAB vs. 4E), dauzkaten ondorioak bezala. Horien ezau-



ARGIA ARTXIBOA



NOTICIASDEGIPUZKOA.COM



Eskuinean, edukiontziak Usurbilen, atez atekoa jarri aurretik. Ezkerrean, plastikoaren bilketa pertsonalizatua Astigarragan.

gari nagusiak laburbilduko ditut, erabiltzailearen aldetik.

**Edukiontzi kolektiboaren sistema (4E):**

- Erabiltzaileek bereizten dituzte –edo ez– hondakinak eta kalean dauden edukiontzi publikoetan lagatzen.
- Edukiontziak aldika husten dira baina ez dago modurik oker erabiltzea eragozteko.
- Erabiltzaile bakoitzak lagatzen du nahi duena nahi duenean.
- Birziklatze tasa gaur egun (Gipuzkoan): 35%

**Edukiontzi pertsonalizatuen sistema (AAB)**

- Erabiltzaileek bereizten dituzte hondakinak eta uzten dituzte etxe atarietan ipinitako edukiontzietan.
- Gauero biltzen dira era pertsonalizatuan eta soilik biltzen da ondo sailkatutako dagoena.
- Astean hirutan biltzen da hondakin organikoa, bi gautan ontziak, behin papera eta beste behin errefusa.
- Birziklatze tasa gaur egun (Gipuzkoan): 86%

Ez naiz sartuko kopuruetan gaiaren mami etikora jo nahi dudalako, horixe baita sarrerotan landu nahi dudana. Gainera, ez daukat motiborik birziklatze portzentajeak zalan-tzan jartzeko, nire esperientzia propioarekin bat datozelako: 4E sisteman gutxi gora behera nire hondakinaren %30 birziklatzen nuen eta AABrekin %90era hurbiltzen naiz.

Gaur nabarmendu nahi dudana da bi sistemak modu ezberdinean bizi dituztela erabiltzaileek. Erabiltzaileak modu ezberdinean hartzen du parte eta, ondorioz, modu ezberdinetan ulertzen ditu. –Esango dut, bide batez, erosotasunari dagokio–

**Atez ateko bilketarekin erabiltzaileak denbora gehixegoz hondakinekin elkarbizi behar duenez, hondakinak sortzeko garaian –erosterakoan batez ere– kontzienteago bihurtzen da**

nez nik ez dudala ezberdintasun handirik nabaritu. Birziklatu nahi duenari Atez Atekoak ez dio behar-tzen dagoeneko egiten ez duen ezer gehiagotara–. Ez baldin bada berdina “zaborra jaistea” AAB sisteman eta 5Eetakoan, diferentzia neurri batean datza norberak hondakinak kudeatzeko hartzen dituen espazioa eta denboran sistema bakoitzak daukan eraginean. Edukiontzi kolektiboaren sisteman batek badauka dena batera jaitsi eta hurrengo gaua arte kontua ahaztea; Atez Ateko Bilketak eskatzen dio erabiltzaileari pixka bat gehiago planifikatzea eta hondakinekin denbora gehixegoz elkarbizi behar duenez, hondakinak sortzeko garaian –erosterakoan batez ere– kontzienteago bihurtzen du.

Nire kolega Armando Menéndezek esan bezala, sarritan ingurumenaren etika identifikatzen da makro-

etikarekin, banaketa administratibo eta politikoen gainetik pertsona multzo handiei eragiten dieten gai globalak aztertzen dituenarekin. Sarrera hartan Armandok oroitarazten zuen hiru mailak –mikro, meso eta makro– direla garrantzizkoak eta defenditzen zuen mikrotik aztertzeko beharra, ingurumen gaiak hurbiltzeko egunero erabakietara. [Hondakinak kudeatzeko] bi sistemok ere eragin ezberdinak daukate hiru maila edo gune horietan, baina hurrengo baterako utziko dut. Hurrengo atalean alderatuko ditugu bi sistemak aurreko sarrera batean azaldu nuen marko kontzeptuala erabiliz. Baina aurreratu ditzaket emaitzak: Atez Ateko Bilketak hobek egiten gaitu, gehiago birziklatzen eta modu kontzienteagoan kontsumitzen duten herritar bihurtzen gaituelako. ■



**LUA**arkitektoak  
 hirigintza  
 hirigintza aholkularitza  
 udal planak  
 urbanizazioak  
 periferazioak  
 balorazioak  
 etxebizitzaren proiektuak  
 birgaitzeak  
 barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña  
 Tel 948 13 26 97  
 lua@luark.com

# 8.000 lagun katalanaren aldeko Potonejada-n Perpinyàn

Euskal Herrian, izerdi bidez erakutsi ohi dugu askotan euskararekiko atxikimendua: Kilometroetan edo Ibilaldietan, Oinez, urratsez Urrats edo Korrika... Iparraldeko katalanek, aldiz, era original batean erakutsi zuten apirilaren 13an Perpinyàn beren hizkuntzaren aldeko maitasuna: elkarri musu emanez.

| KIKE AMONARRIZ |

2 D'ABRIL KOLEKTIBOAK urtero oroitarazi eta salatzen du 1700. urteko apirilaren 2an, Luis XIV. erregeak, espainiar monarkiak Frantziari emandako lurraldeetan katalanaren erabilpena debekatu izana. Debeku hori arautzen zuen ediktua ez da inoiz indargabetu, eta beraz, oraindik ere indarrean dago. Egun honen bidez, katalanaren egoera eta Frantziako Gobernuaren hizkuntza politika salatu nahi izan ditu erakunde antolatzaileak.

Apirilaren 13ko Potonejada, *Un clam d'amor per la llengua catalana* lelopean ospatu zen. Leloari jarraiki, pot emateak edo musuketak, katalanarekiko maitasun-aldarri bihurtu zituzten herritarrek. Halaxe diote katalanaren ofizialtasunaren aldeko ekintza hau sustatzeko erabili duten bideoan:

*“Com uns declaren la guerra, declarem l'amor a la llengua, a la terra, a la gent. Ajuntem les mans, preparem els llavis, esmolem les llengües. Volem pas més callar, volem pas més que ens callin... Potonejada per la llengua catalana”* (Batzuek gerra deklaratzan duten bezala, guk hizkuntzarekiko, lurra-erekiko, jendearekiko maitasuna aldarrikatzen dugu. Bildu ditzagun eskuak, prestatu ezpainak, zorrotzu mihiak –hizkuntzak–. Ez dugu isildu nahi. Ez dugu nahi isil gaitzaten. Musuketa, katalanaren alde!)

Festa, Perpinyàko plaza eta kaleetan barrena barreiatu zen egun guztian zehar. Pot emateak argazki-



Pot emateak edo musuketak, katalanarekiko maitasunaren aldarri.

tan jaso eta Una llengua, un dret, una llei agiria sinatzeaz gain, Ipar Kataluniako hiriburura inguratu zirenek, musika-emanaldiez, sardanez eta bestelako ekintzez gozatze-ko aukera ere izan zuten.

Orain arteko Potojenada-rik jendetsuenean 1.500 lagun inguru bildu zituzten. Baina aurtengo hizkuntzaren aldeko aldarrikapenaren bidez, iaz, martxoaren 31n eta Perpinyàn bertan independentziaren aldeko lipdub-ean bildutako 7.000 pertsonen marka hautsi nahi zuten. *El Punt Avui*-n irakurri dugunez eta antolatzaileek emandako datuen arabera, zortzi mila lagun baino gehiago bildu ziren eta bost milatik gora izan dira musukatzen argazkia atera eta katalanaren aldeko agiria

sinatu dutenak. Pozik dira antolatzaileak. Maitasunezko pot bat euskaraz beraientzat! ■



**MARCOS**  
okindegia

**Benetako  
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)



## Astrofisika eta genetika nagusi Elhuyar sarietan

ZIENTZIA-DIBULGAZIOKO, hiru sari, beka bat eta merezimenduzko saria banatu zituen joan den astean Elhuyarrek, CAF tren konpainiaren babesarekin.

Zientzia -kazetaritza alorrean, Zumaiaiko *Baleike* aldizkariko kazetari Gorka Zabaletak jaso zuen saria, *Ikaragarri bero zegoen zopa moduko bat zen hasieran unibertsoa* lanarekin. Angel Uranga CERNekeo fisikariari egindako elkarrizketa izan da saritua. Isabel Mendizabalek egilearen tesian oinarritutako dibulgazio artikulua jaso zuen *Ijitoen jatorria, DNAn islatua* lanarekin. Zientzia dibulgazio artikulua jaso zuen *Galaxiek topo egiten dutenean* lanarekin irabazi du, Miguel Querejetak idatzia.



ELHUYAR.ORG

Sariez gain, zientzia gizartean sorkuntza beka eman da lehen aldiz eta *Balio berriz balio* proiektuak irabazi du. Ondoko taldea da irabazlea: Arlette Apraiz, Doltza Oarartea, Jaione Ortiz de Zarate, Maider Amutio, Nerea Andres eta Oihane Enbeita. Merezimenduzko saria 20 urte lanean daramatzan Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak jaso zuen.

## Bahea

**Mikel Arrizabalagak *Berriako Ibilkari* blogean esanak:**

“Zergatik da hain eskasa euskararen presentzia mendi elkarteetako bizi-tzan?”

Zarauzko Pagoeta Mendizale Elkartearen jarrera azpimarratu nahiko nuke. 2008 urtean 50 urte bete zituen elkarte honek 400 federatu inguru ditu eta kasik 800 bazkide, beraz, tamaina ertaineko elkarte kontsidera dezakegu. Antolatzen dituzten ibilaldietan erabiltzen dituzten txartel, diptiko, kontrol orri, diploma eta bestelako paperezko euskarrietan, argitaratzen duten aldizkarian, ospatzen dituzten bilera eta batzarretan, web gunean... euskara da erabiltzen duten hizkuntza bakarra. Zalantzarik gabe, jarraitu eta kopia beharrek adibidea, nahiz eta Gipuzkoan tirada handiena duen egunkariko kazetari batek aldizkaria dela eta hau esan “*es una pena que se publique íntegramente en euskera*”.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Klase borroka eguneratua

MAIATZAREN LEHENA da aste honetan. 1986an Chicagon zortzi orduko lanaldiaren alde izandako greba orokorraren ondorioz kondenatu eta urkamendian hil zituzten sei lagunen heriotza –beste bi bizi osorako kartzelarekin zigortu zituzten– tragiko eta heroikoa gogoratzeko ospatzen da. “Chicagoko martiriak” izan ziren. Lau urte geroago, 1890ean, Maiatzaren Lehena mundu osora zabandu zen. Gertaera horiek agerian utzi zuten klase borroka zegoela: alde batetik patronala eta ohiko gobernu zegoen, euren errepresio eta guzti, eta bestetik langileak. Historian, klase borroka horrek aldi ugari izan ditu. Euskal Herrian, Bizkaiko Meatzaldea hastapeneko borroka latz horren lekuko izan zen. 1890ean greba orokorra egin zen Bilboko Ibaizabaleko ezker aldean, bereziki Zugaztietan eta Gallartan; bizitza duinaren alde borrokatu ziren, nagusien jabetzakoak ziren barrakoietan pilatuta bizi baitziren garai haietan. 1976an Gasteiz izan zen klase borroka horren adierazle modernoena; polizia fran-

kistak bost langile hil eta askoz gehiago zauritu zituen ordukoan. Klase borrokaren eskema bera mantendu zen baina: patronala eta gobernu alde batetik, langileak bestetik.

Aspaldion klase borroka desitxuratu eta desegiteko interes handia egon da, “garaiz kanpoko” omen delako. Haatik, “merkatuak” eta multinazionalak tartean direla, klase borroka eguneratu eta erradikalizatu egin da. Azken bost urteetan, hainbeste sufrimenduz eta malkoz lorturiko ongizatea deuseztatu dute, eta klase borroka agerian geratu da berriz ere; ohiko langile klaseari, krisiak pobretutako beste sektore profesional batzuk gehitu zaizkio gainera. Krisiak populazioa “proletarioago” bihurtu du, nolabait esatearren. Denon zeregina behar luke sektore horiek guztiak batu, kapitalismoari –eta bere gestoreei– aurre egin eta alternatiba solidarioa sortzea.

**Juan Mari Arregi**



# Rossano Ercolini Rifiuti Zero-ren bihotzari Nobel berdea

Batzuek Nobel Sari berdeak deitzen dieten Goldman Environmental Prize-etako bat 2013ko edizioan eman diote Rossano Ercolini italiarrari. Capannori (Lucca, Toskana) herrian sortutako eskolako maisu hau da Italia osoan hedatu den Rifiuti Zero mugimenduaren ikonoa eta Europako Zero Zabor mugimenduaren presidentea.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

BI ITALIAR IZAN ZIREN HERNANI, Oiartzun, Usurbil eta Urnietan 2010eko apirilean, bi hautetsi katalanekin batera, eskualdeko Zero Zabor taldeek ekarririk *Atez Ateko hondakin bilketa*, *Zero Zaborrerako bidean* jardunaldietara. Asteotan Gipuzkoa osoa astintzen duen zalaparta Hernanin zegoen zentratua egun haietan, urte bete lehenago Usurbilen baino are gogorrago.

Ez Cavallo eta ez Ercolini ez ziren larregi asaldatu polemikarekin. “Italian ikusi ditugun liskarren ondoan hau batere ez da” zioen Cavallok. Ercolini zergatik ez zen larritzen hobeto ulertuko da BBC katearen gunean *Italy waste campaigner wins 2013 Goldman Prize* (Italiako zaborren kontrako militanteak irabazi du 2013ko Goldman Saria) leiturik: “Rossano Ercolinik konbentzitu zuen Napoli, aspaldiko zabor krisian harrapatutako hiria, zero zabor helburuak har ditzan”. Napoli, kamorraren hiria, telebistetan erakutsi zaiguna zabor mendiz beteta, hondakinak sutan kaleetan...

BBCK azpimarratu duenez, “Ercolinik zioen: ‘Munduan jendea hiltzen ari da janari faltagatik, eta bitartean munduaren beste erdiak behiegi alferrik galtzen du’. 2011n Ercolini jaunak lortu zuen bere kanpainarik arrakastatsuen, Napoliko alkateak sinatu zuenean zero

zabor estrategia bereganatuko zuela. Ia milioi bat biztanleko hiria hondakinen kudeaketa arazoez itota zeukaten 1990ean; badira informeak erakusten dutenak Mafia sartuta zegoela arazo horretan”.

Krisiaren erdian zaborrak erretzera Holandara bidaltzen ari zen hiri hura birziklatzearen bidetik sartzea lortu zuen gizona 2012an mintzatu zen Donostiako Aiete jauregian, Zero Waste Europe koordinadorak Gipuzkoan egindako biltzarraren barruan. Orain Goldman saria eman diote hitzaldietan jakintsu bezain harremanetan xalo eta bero azaltzen den militanteari.

Rossano Ercolini Capannori (42.800 biztanle) hiriko lehen mailako haurrekin ari zen eskolan 1994an, agintariek ezagutarazi zutenean errauste planta bat eraikitzen zela bi kilometro urrunago. Ordurako ikasleekin ingurumen gaiak latzen zituen Ercolini, burubelarri sartu zen errauskailuaren kontrako ekintzetan, funtsean hautu horrek osasunari, ingurumenari eta justizia sozialari dakartzkion kalteak salatuz.

Ercolinik aitortzen duenez, 1996an egin zuten berak eta bere ingurukoek jauzia, “errausketarik ez” gaingiduta “zero zabor bai” aldarrikatzeko. *Zero Waste* formula AEBetan oso zabaldurik zegoen

2010eko apirileko argazkian, Rossano Ercolini Usurbilgo San Esteban ermitaren ondoan, atzean daukela Zubietako errauste planta eraikitzeke hautatutako Artzabaletako inguru. Gain horren inguruko bi kilometroko radioan sartzen dira San Esteban bera, Usurbil eta ARGIAK egoitza daukan Lasarte-Oria. Apirilaren igande goiz eguzkitsua zen, inguruko arbola eta landare guztiak loretan leher-turik. “*Quelle assassini!*” esaten zuen Ercolinik... Bezperan hizlari aritua zen eskualdeko Zero Zabor taldeek antolatutako lehen jardunaldietan, ondoan zituela Roberto Cavallo aditua, Assumpta Boba Argentonako zinegotzia eta Josep Maria Tost Katalunian Atez Atekoa egiten duten herrien lehendakaria, gaur Agència Catalana de Residus partzuegoko zuzendaria dena. Urtebete geroago Gipuzkoako ordezkari bat Capannorin errezibitzean “Hernani” adituta, “Txotx!” egin zien arrapostu Ercolinik.

jadantik eta batez ere Paul Connet irakaslearen irakaspenen oihartzunak heltzen ziren Europako minoria batzueganaino. 1996an Lucca probintzian eraiki nahi zituzten hiru errauskailuen kontrako kanpainan Connet bertara eramatea lortu zuten.

Bilkura eta eztabaida haieetatik sortuko zen Ambiente e Futuro elkar-tea, hondakinen kudeaketaren inguruko gatazketan Italiako erreferente bilakatu dena. Euskal Herrian Ercolini lehenbizikoz azaldu zen 2007an, Txingudiko errauskailuaren kontrako mugimenduak antolatuturik mundu mailako GAIA koordinadorak biltzarrara Hondarribian egin zuenean.

## Capannoriko eredia

Goldman Environmental Prize sariak daramate Richard eta Rhoda Goldman senar-emazteen izena. Senarra ere diruduna izanagatik, ezkongabetan Haas abizena zerman Rhoda zen bietan aberatsa, *Levi-Strauss* arropa marka famatuaren sortzailearen bilobaren biloba izaki. Bien artean 1954an sortu zuten Richard and Rhoda Goldman Fund erakunde filantropikoa, Wikipediaren arabera 600 milioi dolarretik goiti banatu dituen munduko hainbat GKE eta talderen artean.

1990etik urtero mundu osoan ingurumen gaietan ari diren hainbat pertsonalitateren aholkuz izenda-





tzen dira Goldman ingurumen sariak, irabazle bakoitzari 150.000 dolar eskuratzen dizkiona.

Aurtengoan Ercolinirekin batera sariztatuak izan dira Hego Afrikan fracking teknikaz gasa ateratzearen kontrako borrokan ari den Jonathan Deal, Iraken Saddam Husseinek lehortarazitako padurak berreskuratzera sorterrira itzuli den Azam Alwash, Indonesian oihanak salbatzeko borroka baketsuan ari den Aleta Baun, Chicagon ikatzezko bi zentral termiko ixtea lortu dutenen ordezkari Kimberly Wasserman eta Kolonbian birziklatzetik bizi diren zabor biltzaileen defentsan ari den Nohra Padilla.

Hezurretaraino irakasle, Ercolinik 20 urte daramatza zabor zorro

batean datzan mundu ezkutua azaleratzen. Zabor poltsak eraman, erakutsi eta aztertu ditu eskoletan, udal bilkuretan, herritarren bilkuretan, komunikabideetan. Errausteak alternatiba badaukala azaldu die umeei, agintariei eta apaizei.

Monza hirian 1980ko hamarkadan hasirik Italian atez ateko bilketa lehendik bazetorren ere, Capannorik hondakinen kudeaketa berria beste maila batera jaso zuen, *Rifiuti Zero* estrategia bereganatu eta zabaldua. Dagoeneko 2.230.000 biztanle biltzen dituzten 72 udalerrik onartu dute zero zabor estrategia beren politiketan.

Orain Italia osoari begirako kampaian ari dira. *Legge Rifiuti Zero* ekimenarekin 100.000 sinadura biltze-

ko -Italian 50.000 aski dira- Erromako parlamentuak legea eztabaidatu dezan.

26 atalez osatutako lege oso bat garatu dute, Internetez eskuratu daitekeena. Artikuluetan proposatzen dira gaikako bilketa orokortzea, hondakinak errausteko proiektu guztien moratoria, errausketarentzako prima eta laguntzak oro ezabatzea, hondakinak esportatzeko debekua, errauskailuen eskoriak merkaturatzeko debekua, zerga eta tarifen berrantolaketa orokorra, eta abar luzea.

Herritarrek nork bere etxean egin duen errutina aldaketatik abiatu den arren, zero zabor erudian ezin da aitzinatu kontsumogaien sortzaileek beren jardura aldatzen ez badute. Industriak oraindik eguneroko merkaturatzen baititu ez berrerabili eta ez birziklatu ezin diren gaiak. Capannoriko herriak abian jarri duen Centro di Ricerca e Riprogettazione zentro txikiak ikertzen du nola hobetu edo saihestu errefusaren osagai gehienak.


Capannoritik zabaldu da, esaterako, Europa osora Nexpresso motako kapsula birziklagaitzen inguruko eztabaida... eta kapsula alternatiboak sortu ere bai, noizbait Euskal Herrira iritsiko direnak.

Bizimodu aszetikoa daraman Rossano Ercoliniri ondo etorriko zaizkio sariaren txanponak. Seguru, beste sarituekin batera egin bisitan, Barack Obama presidenteari ere zaborrez zerbait berri irakatsi diola. ■



# ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua  
Kalitatea  
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

## Aske Gunea eta bake prozesua

**ETA-REN** ondorengoan aktore politiko bakoitza nola kokatzen den ikusi dugu berriz ere Aske Gunearekin. PPK bere errepresio politikarekin jarraitzen du eta ez dirudi horri buelta eman nahi diotik. Krisi ekonomiko latzaren erdian, kohesio osagai da Espainiako batasuna, eta horri heldu dio. Kataluniak ematen dio aukera eta Euskal Herriko bake prozesuak ere bai. Epe ertain-laburrera horrek seguruenik beste arazo batzuk sortuko dizkio lurralde horietan, baina egoeraren larrian, soilik oinetakoen punta da garrantzitsua nagusitasuna duenarentzat. Eta oraingoz PPK nagusitasun handia du Espainian.

PSOEk badu aurrera egiteko borondaterik, baina geldo, hauteskundeetako hondamendien ondoren, bere birmoldaketan burubelarri murgildua dago, krisiari eta estatu ereduaren berritzeari aurre nola egin asmatu ezinik. Berrantolaketa gidatzeko lehian, gainera, bi euskal herritarren izenak entzuten dira gero eta ozengor: Patxi Lopez eta Eduardo Madina.

EAJ badabil bake bideak urratzen, elkarbizitzaren eta akordioaren bidetik Euskal Herriaren orrialdea pasatzea oso bere interesakoa da. Esparruak ere argi finkatuak ditu, Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra eta, zehazkiago, Urkullu-Raxoi ardatza eta bakegintzako ponentzia –agur Aiete–. Ahal den neurrian, dena berak ondo kontrolatua; eta badi-rudi bide horretan PSErekin hobeto molda daitekeela (memoria, foruak eta Espainiaren federalismoa...) ezker abertzalearekin baino.

Seguruenik horregatik, bere inguruko hedabideek ez zioten ia



LANDER ARBELAITZ

jaramonik egin Donostian Aske Gunearekin gertatu zenari, bereziki Ertzaintzak atxilotetak gauzatzeko izandako partehartzearen unera arte. Eta une horretan ere gutxi eta oso kontrolatua. EITBko medioetan ere –Euskadi Irratia besteak baino gehiago gerturatu arren– agerikoa izan da jarrera hori. Seguruenik EAJk irakurri du komeni dela ez haize gehiegi ematea ezker abertzalearen mugimenduari garrantzitsu honi. Hala ere, gertakizunek berez hartu dute lekua eta garrantzia egunerokotasun informatiboan. Urak moduan, bere bidea egin dute.

*Gertakariak, mugimendua bultzatu duen ezker abertzalea bera ere gainditu dute seguruenik*

Iñaki Altuna kazetariak argi diosku Gazte Gunearen iturburua nondik datorren (*Gaur*8, 2013-04-27): “Nekez geldituko dugu mar-txan dagoen operazio bat, baina erantzun egokia emanda operazio hori agindu dutenen apustua higitu ahal izango dugu, eta, modu berean, aterabide demokratikoa defendatzen dugunon jarrera indartuko dugu”. Halaxe zioen ezker abertzalearen estrategiaren berregokitzea ekarri zuen ‘Argitzen’ eztabaida txostenak, ‘Erantzun dinamika: herri harresia erai-

ki’ izenburuko atalean. Paperetik errealitatera urrats egitea izan ohi da zaila halako egitasmo teorikoe-tan, baina esan daiteke oraingoa lortu dutela (...)”.

Gertakariak, mugimendua bultzatu duen ezker abertzalea bera ere gainditu dute seguruenik. Beste gauza bat da aurrera begira zer ekarri dezakeen. Oraingoz, “dena da ETA” doktrinapean auzi-petuak diren 200 bat pertsona horien kasuek zeresan asko eman-go dute. Gizarteari gatazka konpondu barik dagoela gogorarazteko beta ezin aproposagoa ematen dio ezker abertzaleari –Madri-lek eskainia berriz ere–.


Baina ezker abertzalearen logikan, hori ez da atzera begiratzea, hainbat buruzagi jeltzale eta sozialistek iradoki duten moduan, guztiz kontrara baizik. Orain arte ezker abertzaleak ez du desobediencia zibilaren tekla modu aktibo eta estrategikoan sakatu –beste batzuen ahaleginak sostengatu baditu ere–, eta hau ikuspegi estrategikoa duen mugimendua da. Hastapen fase honetan, gainera, ibilbide handia du, erresistentzia baketsuak Estatuaren oso neurri injustuei erantzungo dielako eta hor, galtzeko baino –herritarren sostengueren ikuspegitik– dena irabazteko delako ■





ASTE HONETAKO

# zozketak




## Besaro Landa Hotela

Bi gau  
bi lagunentzat

Iratiko oihanaren sarreran  
Irigoien, 5  
Itzaltzu NAFARROA

[www.besaro.es](http://www.besaro.es)

1



## Iruñeko Planetarioa

3 harpidunentzat  
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g  
Iruñea NAFARROA

[www.planetario.org](http://www.planetario.org)

2



## Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidunentzat  
bina sarrera

Frantzia, 24  
Gasteiz ARABA

[www.artium.org](http://www.artium.org)

3



## Blues & Decker

stealin' the blues

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak  
Soraluze GIPUZKOA

[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

4



## Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2365. Argia)

### KONTZERTUA "Gau Beranduan"

- Juan Olalde Agirre (P. Antxo)
- Izaro Sodupe Akuna (Azkoitia)
- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)
- Jabier Agirre Lasarte (Donostia)
- Mari Eli Ituarte Zarragoikoetxea (Markina-Xemein)

### ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Ana M.Zubiarremereria (Eibar)
- Xabier Zubizarreta Lasagabaster (Arrasate)
- Josu Aldama Larena (Bitoriano, Zuia)

### KONTZERTUA

- Begoña Azpeitia Begiristain (Alegia)

### INGURU ABENTURA

- Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)
- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)
- Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)
- Ione Gorostazu Etxebeste (Berastegi)

### ARGIA kamiseta

- Miren Iturrioz Guiu (Andoain)
- Ibon Manterola Larrañaga (Urrestila)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30  
Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com)  
[www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)

Gunea

argia



euskalerrairratia **fm91.4**



Nafarroako Gobernuaren  
debekuaren aurrean  
emaguzue zuen baimena

# Bazkidetu!

[euskalerrairratia.com](http://euskalerrairratia.com)

**00 34 948 17 01 51**